

1/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, IRAILAREN 11KOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN TASA ETA PREZIO PUBLIKOEI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEKO DENA

ZIOEN AZALPENAK

I

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzen dituen irailaren 29ko 3/2006 Legearen azken xedapenetatik lehenengoak baimena ematen dio Jaurlaritzari urtebeteko epean, legea indarrean sartzan denetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina egin eta onartzea.

Araugintzako gaikuntza horretan, berariaz aipatzen da II. Titulua kapitulu independenteetan egituratu behar dela tasa bakoitzari bat eskainiz; orain dauden atalak kendu egin behar direla eta II. eta III. Tituluetakoa artikuluen zenbakiak egokitu egin behar direla. Legegintzako eskuordetzaren barruan sartzan da, halaber, lege-testua erregularizatu, argitu eta harmonizatzeko ahalmena, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 52. artikuluko 4. paragrafoaren arabera.

Manu hori betetzeko eta baimen hori erabiliz egiten da legegintzako dekretu hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena.

II

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Herri Prezioei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legean aipatzen da, dagoeneko, tasa eta prezio publikoak testu bakar batean arautzearen egokitasuna, diru-sarrera publikoen modalitate biei buruzko oinarritzko printzipioak ezartzeko eta tasa guztiak banan-banan arautzeko. Orduan arautu ziren, lehenengo aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoak lege-testu bakar batean.

Lege horrek arrazionaltasuna sartu zuen ordura arte heterogeneoa, zaila eta barreiatua zen diru-sarrera publikoen sektore honen arauketan, eta bete-betean gauzatu zituen legea aldarrikatu zen unean indarrean zeuden tasak lege-mailako arau batean berrantolatatu, homogeneizatu eta bateratzeko xedeak.

Helburuak, alabaina, ez ziren mugatu tasen koadroa bateratzera, asmo handiagoko xedeak ere bilatu baitziren. Tasa eta prezio publikoen kontzeptuak zehaztu ziren eta prezio horiek noiz eska daitezkeen finkatu zen; tasak erregulatzen dituzten arauak zerga-gaietan oro har bete behar diren printzipioetara egokitu ziren, eta arau argiak eta aplikatzen errazak ezarri ziren tasen kudeaketan, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko. Zergadunen bermeak osatzeko, likidazio-eskakizun formalak eta errekurritzeko bideak ere finkatu ziren.

Dena dela, Legea hainbat urtetan indarrean egon ondoren, hainbat gorabehera gertatu ziren eta komenigarri ikusi zen lege berri bat onartzea, izandako esperientzia aprobetxatuz esparru arautzaile berria zehazteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 9ko 13/1998 Legeak, aurreko legeak ezarritako helburuetan sakonduz, tasa eta prezio publikoen zerga-kontzeptuak Konstituzio Epaitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia egokitu zituen eta, sarrera publiko horien edukari buruzko hausnarketa-prozesu orokor baten barruan, orduan indarrean zeuden hainbat tasei buruzko araudia aldatu zuen, tasa berriak ezarri zituen eta beste batzuk kendu.

Orobat, zergen arloan beti begiratu behar diren printzipioak ezarri ziren, hala nola legezkotasunaren printzipioa eta zergen arloko gaiak legez arautzeko erreserba, aurrekontuen unibertsaltasunaren printzipioa, ez-eraxkitzearen printzipioa eta kutxaren batasunaren printzipioa. Orobat, finantza-nahikotasunaren printzipioa eta ahalmen ekonomikoaren printzipioa.

Aurreko araudiarekin gertatu zen bezala, 13/1998 Legea indarrean egon zen bitartean zenbait aldaketa gertatu ziren, bai Administrazioaren jardueran, bai autonomia-erkidegoko eta Estatuko legerian eta, aldaketok garrantzitsuak zirenez, egoki ikusi zen lege-testua berriro aldatzea.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2000. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 29ko 4/1999 Legearen, merkataritza jarduerari buruzko 7/1994 Legea aldatzen duen azaroaren 10eko 7/2000 Legearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 8/2002 Legearen bitartez, zenbait aldaketa egin eta tasa berriak sartu ziren. Aldaketa horiekin batera, tasen zenbatekoak euroari egokitu zitzaizkion.

Berritasun garrantzitsuenak gorabehera horietara egokitu beharraren ondorio izan ziren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzen dituen irailaren 29ko 3/2006 Legearen bitartez onartu ziren, sarrera publiko horiek modu eraginkorrago batean kudeatu ahal izateko.

Hortaz, berriz definitu zen tasaren kontzeptua, jurisprudentziaren azken erabakietara egokitzeko, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrak lehenago egokitu zuen bezala. Preskripzio-gaietan, epea aldatu eta lau urtekoa ezarri zen, eta instituzioaren arautegi osoago bat ezarri zen. Bitarteko telematikoak erabiltzeko aukera ere aztertu zen zerga-zorra ordaintzeko, eta araudi berria ezarri zen aitortpena garaiz kanpo eta alde zuzeneko errekerimendurik gabe egiteagatiko errekarquetarako.

Gainera, Eusko Legebiltzarraren urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 8/2002 Legeak autonomia-erkidegoko zenbait tasaren esparruan sortutako egoera argitu zen, zerga osatzen duten elementuak behin betiko zehazteko.

Bestalde, tasa berriak sartu eta beste batzuk kendu ziren eta artikuluko edukia aldatu zen. Aldi berean, Euskadi Informazio Gizartean Planean jasotako gomendioei eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako xedapenei jarraituz, azken xedapenetatik laugarrena aldatu zen, Eusko Jaurlaritzaren web orrian Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu eguneratua sartzeko, betiere, arauen aplikazio-eremu espazialean zabalkunde handiagoa izan dezan.

Geroago, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legearen bitartez, nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren araubidea kontrolatzeko

zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa kendu zen, nahiz eta indarrean jarraituko duen harik eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak izendatu arte.

Tasa eta prezio publikoei buruzko azken aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legea aldatzen duen ekainaren 22ko 5/2007 Legearen bitartez egin zen. Horren bitartez, paragrafo berri bat sartu zen, presazko iragarkiak sartzeari buruz.

III

Legegintzako dekretu honen bitartez onartutako testuan, gorde egiten dira, bai Atariko Titulua —helburuari eta aplikazio-eremuari, aurrekontuari lotutako neurriei eta sarrera publiko hauen kudeaketaren erantzukizunari buruzkoa— bai I. Titulua —tasei aplikatu ahal zaizkien xedapen orokorrei buruzkoa—.

Bestalde, II. eta III. tituluaren ordena aldatu egiten da. Ondorioz, prezio publikoei buruzkoa II. Titulua izango da, eta tasa bakoitzaren berariazko araudiaren aurretik joango da. Horrela, artikulua horiei ez zaie zenbakia aldatu behar izango, edukian aldaketarik izan gabe, tasa berriak sartzen direnean.

Tasen sailkapen berri bat ere egin da. Sailen arabera aurreko sailkapena, irizpide juridiko formaletan oinarritua, desfasatuta dago, sailen izenak eta horien funtzio eta jarduera-esparru batzuk aldatu egin baitira. Sailkapen berria irizpide objektibo eta materialen arabera egin da, eta horren ondorioz, titulu berriak sortu dira, titulu berri bat esparru berri bakoitzerako.

Hortaz, III. Tituluan, izaera orokorreko tasak izenekoan, hainbat sailek aplikatutako tasak sartzen dira, baita identifikazio argirik ez dutenak ere; IV. Tituluan, ezagutzak egiaztatzeagatiko tasak eta gorabehera pertsonalen inguruko tasak izenekoan, berriz, titulu akademikoak, euskararen ezagutzari buruzko egiaztagirak, diplomak, laketontziak erabiltzeko behar diren tituluak, gazte txartela eta aterpe-kide-txartela edota "International Student Travel Confederation" elkartearen nazioarteko abantailen txartela emateagatik ordaindu behar diren tasak sartzen dira.

Trafikoari, joko eta ikuskizunei eta segurtasun pribatuari dagozkien tasak V. Tituluan biltzen dira. VI. Tituluan, industria eta nekazaritza alorreko tasak izenekoan, jarduera-sektore horietako tasak biltzen dira. Gauza bera gertatzen da VII. Tituluarekin, osasun alorreko tasak izenekoarekin, eta VIII. Tituluarekin, etxebizitza eta eraikuntza alorreko tasak izenekoarekin.

IX. eta X. Titulu berrietan, ingurumenaren alorreko eta garraio, merkataritza eta kontsumoaren alorreko tasak jasotzen dira, hurrenez hurren.

Gaikuntzan adierazitakoarekin bat, tasa bakoitzaren berariazko araudiak bere kapitulua izango du eta lehengo atalak desagertu egiten dira. Tasen zenbakizko identifikazioa ere desagertu egiten da, Jaurlaritzako sailen arabera sailkapenaren ondoriozko erreferentzia baitzen.

Tasa bakoitzaren erregulazioa dela eta, artikuluek legean bertan aurreikusitako eskemari jarraitzen diote funtsezko elementuen definizioari dagokionez. Araudia erregularizatzearen, kasu batzuetan nahitaezkoa izan da lehen artikulua bakarrean arautzen zen tasa hainbat artikulutan banatzea.

Bestalde, arau-erreferentziak eguneratu egin dira eta artikuluen izenburuetako eta edukietako zenbait terminoren erabilera bateratu egin dira, baita artikuluetako paragrafoen konfigurazioa eta antolamendua ere.

Era berean, beharrezko ikusi denean, tasen funtsezko elementu eta elementu kuantitatibo batzuk argiago zehaztu dira.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko irailaren 11n egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea aldatzen dituen irailaren 29ko 3/2006 Legearen azken xedapenetatik lehenengoak ezarritakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen da eta ondoren txertatzen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Beste xedapen batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoen maiatzaren 9ko 13/1998 Legeari egiten zaizkion arauzko erreferentziak Legegintzako Dekretu honen bitartez onartutako testu bategineko manuei egiten zaizkiela ulertuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Legegintzako dekretu hau indarrean jarri baino lehen sortutako tasak data horren aurreko berariazko xedapenen arabera arautuko dira.

Bigarrena. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legearen hirugarren xedapen iragankorrak eta lehenengo xedapen indargabetzaileak xedatutakoari jarraituz, nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren araubidea kontrolatzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa —Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legearen 102. eta 106. artikuluetan aurreikusitakoa— Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak izendatutakoan izango da eraginkorra.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Legegintzako dekretu honen bitartez onartutako testu bategina indarrean sartzen denean, indarrrik gabe geldituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 9ko 13/1998 Legea eta testu bateginean ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Legegintza Dekretu hau eta honen bidez onartzen den testu bategina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Testu bategina 2007ko urriaren 1a baino lehen jartzen bada indarrean, 59. artikuluko 3. paragrafoa ez da indarrean jarriko egun horretara arte.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN TASA ETA PREZIO PUBLIKOEI BURUZKO LEGEAREN TESTU BATEGINA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Lege honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Institutuzionalak eskatzen dituzten tasak eta prezio publikoak arautzea du xede.
2. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek ematen dituzten zerbitzuengatik sortzen diren diru-sarrerak.

2. artikulua. Aurrekontuei dagozkien neurriak.

1. Lege honetan arautzen diren diru-sarreraren bitartez eskuratzen diren baliabideak Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan agertu beharko dira jasota, Diru-sarreraren Egoera deritzon atalean, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusiaren Kutxa eta Kontuetan sartuko dira.
2. Baliabide horiek ematen dituzten etekinak diru-sarreraren dagokion aurrekontuari egotziko zaizkio oso-osorik, eta ezingo da etekin horietatik ezer kendu ez eta kopururik murriztu, ondorengo 10. artikuluan xedatzen den kasuan izan ezik.

3. artikulua. Erantzukizunak.

1. Baldin eta agintariek, funtzionario publikoek, agenteek edo horien kidekoek bidegabeki eskatzen badute tasa edo prezio publiko bat, edo lege ezarritakoa baino kopuru handiagoa eskatzen badute tasengatik edo prezio publikoengatik, eta hori berek hala nahita eta errudun izanik egiten badute, diziplina-arloko hutsegite oso larria egingo dute. Eta hutsegite horrengatik dagokien erantzukizunak ez du eragotziko beste arlo batzuetan ere ekintza horiengatik dagozkiekeen erantzukizunak ere eskatzea.
2. Eta, beren ebazpenekin edo egintzekin Lege hau eta arlo hau arautzen duten gainerako arauak urratzen badituzte, eta berek hala nahita eta errudun izanik egiten badute hori, aurreko erantzukizun horretaz gain, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari.

I. TITULUA. TASAK. GUZTIETARAKO XEDAPENAK

I. KAPITULUA. KONTZEPTUA, PRINTZIPIOAK ETA ELEMENTUAK

Lehenengo atala. Kontzeptua

4. artikulua. Tasa zer den.

Tasak tributu-mota bat dira, zergapeko egitatetzat honako hauek izan ohi dituztenak: herri jabaria banako batek berak bakarrik erabiltzea edo herri-jabariari banako batek aprobetxamendu berezia ateratzea; zuzenbide publikoaren arabera zerbitzu edo jarduerak bereziki zergapekoarentzat gauzatzea, edo bereziki hari eraginez edo haren onurarako gauzatzea; beti ere zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo hartzekoak ez badira, edo sektore pribatuak eman edo gauzatzen ez baditu.

Bigarren atala. Printzipioak

5. artikulua. Legezkotasun-printzipioa.

Legebiltzarrak emandako legearen bidez sortu eta arautu beharko dira tasak. Legeak tasen funtsezko osagaiak ezarri beharko ditu.

6. artikulua. Zein araudi aplikatuko zaien.

Hona hemen zeintzuk diren tasen arauak:

- a) Lege hau edo tasa bakoitzaren berezko legea.
- b) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea.
- c) Lege horiek garatzeko emandako erregelamendu-arauak.

7. artikulua. Aurrekontu-erregimena.

1. Tasen ondorioz sortzen diren diru-sarreraren aurrekontu-erregimena Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuna osatzen duten diru-sarrerei aplikatzen zaien bera izango da.
2. Tasa-bilketaren emaitza guztien beharrei erantzuteko erabiliko da, betiere lege batek xede jakin baterako izendatzen ez badu.

8. artikulua. Baliokidetasun-printzipioa.

Tasek zergapeko egitate duten zerbitzu edo jardueren kostua berdintzera jo behar dute.

9. artikulua. Ekonomi ahalmenaren printzipioa.

Tasak ezartzerakoan, kontuan hartu beharko da zer-nolako ekonomi ahalmena duten tasok ordaindu behar dituzten pertsonak, baldin eta tributuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

10. artikulua. Tasak itzultzea.

Baldin eta, subjektu pasiboari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, tasaren zergapeko egitatea gauzatzen ez bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo zaio tasa ordaindu duen subjektu pasiboari.

Hirugarren atala. Tasaren funtsezko osagaiak

11. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasak jarri ahal izango dira, hain zuzen ere, jabetza publikoa norik beretzat erabiltzen duenean edo aprobetxamendu bereziren bat ateratzen dionean, edo zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenpean eskaintzen edo egiten direnean, hala nola:

- a) Administrazioaren edozein eratako lizentzia, onirizpen, matrikula edo baimen izapidetu edo ematea.

- b) Interesatuak eskatutako egiaztagiri edo agiriak ematea.
- c) Liburuak legezkatu eta zigilua jartzea.
- d) Teknikariek eta gaitasundunek lan hauek egitea: zaindu, zuzendu, ikuskatu, ikertu, aztertu, txostenak egin, aholkuak eman, egiaztatu, arakatu edo bilatu.
- e) Egitasmoak azterzea, egiaztapenak eta erkatzeak egitea, saioak eta homologazioak egitea.
- f) Balorazioak eta prezio-finkatzeak egitea.
- g) Erregistro ofizial eta publikoetan inskripzioak eta oharra idaztea.
- h) Irakaskuntza-alorreko zerbitzuak eta horien osagarriak egitea.
- i) Portu eta aireportuetako zerbitzuak.
- j) Osasun-arloko zerbitzuak.
- k) Norbanako zehatzentzat egindako orotariko zerbitzu edo jarduerak, norbanako zehatzei eragiten edo onura dakarkieten orotariko zerbitzu edo jarduerak, edo zuzenean nahiz zeharka norbanako horiek eragindako orotariko zerbitzu edo jarduerak.

12. artikulua. Lurraldetasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomoek eskaini edo gauzatutako zerbitzu edo jarduera publikoen tasei ezarriko zaie lege hau, zerbitzu eta jarduera horiek nonahi egiten direla ere.

13. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Hona noiz sortuko den tasa ordaintzeko betebeharra, beti ere zergapeko egitatearen izaeraren arabera:

a) Jabetza publikoa nork beretzat erabiltzeko kontzesio-, baimen- edo lagapen-tituluak ematen direnean, edo jabetza horri aprobetxamendu bereziren bat ateratzeko tituluak ematen direnean.

Kontzesioa edo kostu-bidezko lagapena indarrean diren bitartean, tasa ordaintzeko betebeharra dagokion urteko urtarrilaren 1ean sortuko da.

b) Zergapeko egitate diren zerbitzu edo jarduerak eskaintzen edo gauzatzen direnean.

2. Hala ere, dena delako egintza aldeztu aurretik eskaera eginda gauzatzekoa bada, aurretiaz ordaintzeko exijitu daiteke, eskaera aurkezten denean, hain zuzen.

Administrazioak ez badu bere egintza hori burutzen, eta arrazoia ezin bazaio subjektu pasiboari egotzi, tasaren zenbatekoa itzuli egin beharko da.

14. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Honako hauek izango dira tasen subjektu pasiboak: jabetza publikoa nork beretzat erabiltzen duenean edo jabetza horri erabilera bereziren bat ematen zaionean, onuradun gertatzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak, edo zergapeko egitateak diren zerbitzu edo jarduera publikoen eragina edo onura jaso dutenak, dela berek zuzenean edo dela beren ondasunetan.

2. Hala badagokio, honako hauek ere tasen subjektu pasibotzat joko dira: banatu gabeko oinordekotzak, ondasun-erkidegoak eta, nortasun juridikorik izan ez arren, zergaren peko izan daitezkeen bestelako entitate batzuk, hala nola ekonomia-batasunak eta ondare bereziak.

3. Tasa bakoitzaren berariazko legeak zergapekoaren ordezkokoak izendatu ahal ditu subjektu pasibo gisa, betiere zergapeko egitatearen ezaugarriak direla-eta komenigarria bada.

4. Zergapeko egitatean bi onuradun edo gehiagok esku hartzen badute, biak edo guztiak batera izango dira erantzule, non eta tasa bakoitza arautzen duen arauak ez duen berariaz besterik xedatzen.

15. artikulua. Erantzuleak.

1. Tasa bakoitzaren lege bereziak tasaren zenbatekoaren erantzule solidariotzat edo ordezko erantzuletzat jo ahal izango ditu prozeduran interesa duten beste pertsona batzuk.

2. Etxebizitzak, habearteak, lokalak edo oro har eraikuntzak okupatzen edo erabiltzen dituztenen onerako zerbitzu edo jarduerengatik eskatzen diren tasetan, eraikuntza horien jabeak izango dira ordezko erantzuleak.

16. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

1. Lege honetan edo beste batzuetan bestelakorik agintzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioa, Estatua eta gainontzeko herri-erakundeak – lurraldeari atxikiak nahiz instituzionalak– salbuetsita egongo dira tasak ordaintzeko betebeharretik, betiere salbuespen hori elkarri aitortzen badiote.

2. Lege batek hala agintzen badu, gainontzeko subjektu pasiboak ere salbuetsita geratuko dira tasa jakin bat ordaintzeko betebeharretik, edo hobaria izango dute tasa jakin bat ordaintzeko betebeharrean, beti ere zergapeko egitatearen ezaugarrien arabera edo subjektu pasiboen beren izaeraren arabera.

17. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

1. Jabetza publikoa norik beretzat erabiltzeagatik edo jabetza horri aprobetxamendu bereziren bat ateratzeagatik ordaindu beharreko tasek guztirako kostua izango dute muga: ezin dute dagokion merkatuan duten balioa edo erabileraren edo aprobetxamenduaren onurari dagokion balioa gainditu.

Meatzetarako edo hidrokarburoetarako baimen edo kontzesioen kasuan, eskubidearen xede den lur-eremua hartuko da kontuan.

2. Zerbitzu batengatik edo jarduera batengatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoak ezingo du, guztira, zerbitzu horren edo jarduera horren benetako kostua edo ustezko kostua gainditu, ez eta jasotako prestazioaren balioa ere.

Zenbateko hori zehazteko, kostu zuzenak eta zeharkakoak hartuko dira kontuan, eta are beste hauek ere: finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala balegokio, tasa ordaindu beharra eragin duen zerbitzua edo jarduera hori arrazoizko era batean ematen jarraituko dela ziurtatzeko beharrezkoak direnak. Eta, hori guztia, zerbitzu horiek ordaintzeko baliatzen den aurrekontuaren konturik egin gabe. Subjektu pasiboak tasaren zenbatekoa tasaren onura sozialaren kontzeptura hurbilarazteko egiten dituen jarduera, ekintza edo zerbitzuek dakartzaten kostu sozialak edo onura sozialak ere kontuan hartuko dira, beti.

3. Ordaindu beharreko kuota prozedura hauetako batez ezar daiteke: kopuru finko bat izendatu daiteke kuotatzat; zerga-oinarria eratzen duten kopuruei aplikatu beharreko kargatasa bat ezar daiteke; edo bi prozedura horiek erabil daitezke, batera.

4. Jabari publikoa norberarentzat erabiltzeak edo hari aprobetxamendu berezia ateratzeak jabari publikoa suntsitzea edo andeatzea dakarrenean, eta suntsitze edo andeatze hori aski neurri handian eta tasaren beraren zenbatekoa arautzen duten arauetan aurreikusi gabeko

era batean egiten bada, onuradunak konponketaren edo berreraikuntzaren gastu guzti-guztiak ordaindu beharko ditu. Betebehar horrek ez du kentzen tasa ordaintzeko betebeharra. Kalteak ezin konponduzkoak badira, kalte-ordaina suntsitutako ondasunen balioaren adinakoa edo ondasunei eragindako hondamenaren zenbatekoaren adinakoa izango da.

II. KAPITULUA. TASEN KUDEAKETA ETA LIKIDAZIOA

18. artikulua. Kudeatu, ikuskatu eta kontu hartzea.

1. Tasak kudeatu eta likidatzea honako hauei dagokie: tasa ordaintzeko betebeharra sortzea eragiten duten zerbitzuak edo jarduerak gauzatzen dituzten sailei eta organismo autonomoi.
2. Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasen kudeaketa, likidazioa eta bilketa zaindu eta kontrolatzea; orobat dagokio tasen finantza- eta tributu-arloko ikuskaritza, premiamendu bidezko bilketa eta kontabilitate arloko ikuskaritza eta kontrola.

19. artikulua. Likidazioa.

Tasaren kudeaketa, likidazioa subjektu pasiboak berak egin behar duela aurreikusten ez den kasuetan, honela hasiko da: edo Administrazioak berak bere kabuz egindako likidazio baten bitartez, tasa ordaintzeko betebeharra sortzen den unean, edo subjektu pasiboak berak eskatuta, eskaera egiten duen unean bertan. Likidazioan, honako hauek agertu beharko dira beti: zein arauen babespean egiten den; likidazioaren kontzeptua; zerga-oinarria eta, hala balegokio, karga-tasa; kuota, dela finkoa edo aldagarria; subjektu pasiboa; ordainketa non, zein eperen barruan eta nola egin behar den; eta likidazioaren kontra zein errekurtsio aurkez daitezkeen, zein epetan aurkez daitezkeen eta zein organok duten ebazteko eskumena. Hori guztia tasa likidatzen duenaren erantzukizuna izango da.

20. artikulua. Autolikidazioak.

Lege honetan zehaztutako kasuetan eta erregelamenduz zehaztuko direnetan, tasen subjektu pasiboek eurek egin beharko dituzte tasen likidazio-eragiketak, bai eta era horretan ateratzen den zorra ordaindu ere.

21. artikulua. Ordainketa.

1. Tasak, oro har, ordaintzeko betebeharra sortzen den unean ordaindu beharko dira, non eta dena delako tasaren berezko araudian ez den ordaintzeko borondatezko eperik zehazten.
2. Tasak eskudirutan ordainduko dira, ondoren aipatzen diren bitartekoetako bat erabiliz eta, betiere, bitarteko horietako bakoitzerako erregelamenduz ezartzen diren eskakizun eta baldintzak betez:
 - a) Legezko dirua.
 - b) Txekea.
 - c) Kreditu- edo zor-txartelak.
 - d) Banku-transferentzia.
 - e) Banku-helbideratzea.
 - f) Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren baimena duen beste edozein bitarteko
3. Ez da onartuko tasak beste herri-administrazioen batek jaulkitako agiri zigilatuen edo ordainketa-agirien bidez ordaintzea.

4. Ogasunean eskumena duen sailak baimena eman dezake aurreko 2. paragrafoaren c), d) eta e) idatz-zatietan adierazten diren ordainketa-motetan telematika-bidea erabiltzeko. Horretarako, ordainketa teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egiteko behar diren eskakizun eta baldintzak arautuko dira.

22. artikulua. Tasak biltzea.

1. Nork bere borondatez ordaintzeko epea amaitu eta artean tasak eragindako zorra ordaindu gabe badago, nahitaezko betearazte-aldiari ekingo zaio.

2. Hala ere, nork bere borondatez ordaintzeko epeaz kanpo egiten diren ordainketetan, berandutze-korritua ordaindu beharko da.

Berandutzeagatik ordaindu beharreko korrituak eskatuko dira, era berean, egintzaren betearazpena bertan behera uzten den kasuetan eta ordainketa era batera edo bestera geroratzen, zatikatzen eta luzatzen den kasuetan.

3. Honako errekareru hauek ordaindu beharko dira tasaren aitortpena garaiz kanpo eta alde aurreko errekerimendurik gabe egiteagatik:

a) Baldin eta tasaren aitortpena aurkeztu eta ordainketa egiteko ezarrita dagoen epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan egiten bada autolikidazioa, errekareru % 5ekoa izango da, berandutze-korrituak eta zigorrak kontuan hartu gabe, baldin eta ezarri baziren.

b) Baldin eta tasaren aitortpena aurkeztu eta ordainketa egiteko ezarrita dagoen epea amaitu eta hurrengo laugarren eta seigarren hilabeteen bitartean egiten bada autolikidazioa, errekareru % 10ekoa izango da, berandutze-korrituak eta zigorrak kontuan hartu gabe, baldin eta ezarri baziren.

c) Baldin eta aitortpena aurkeztu eta ordainketa egiteko ezarrita dagoen epea amaitu eta hurrengo zazpigarren eta hamaikagarren hilabeteen bitartean egiten bada autolikidazioa, errekareru % 15ekoa izango da, berandutze-korrituak eta zigorrak kontuan hartu gabe, baldin eta ezarri baziren.

Aurreko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren errekareruak kalkulatzeko, autolikidazioaren ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoa edo garaiz kanpoko aitortpenen ondorioz egindako likidazioaren zenbatekoa erabiliko da, eta ez dira kontuan hartuko autolikidazioa edo aitortpena aurkeztu arte sortutako berandutze-korrituak eta zigorrak, baldin eta ezarri baziren.

d) Aitortpena aurkezteko ezarrita dagoen epea bukatu eta 12 hilabete igaro ondoren egiten bada autolikidazioa, errekareru % 20koa izango da, eta ez dira kontuan hartuko zigorrak, baldin eta ezarri baziren. Kasu hauetan, berandutze-korrituak eskatuko dira, aurkezpena egiteko ezarritako epea amaitu ondorengo 12 hilabeteen amaierako egunaren biharamunetik autolikidazioa edo aitortpena aurkeztu arteko eguneraino igarotako aldiarengatik.

4. Tasa ordaindu behar dutenek garaiz kanpoko autolikidazioa aurkeztearekin batera egin behar dute diru-sarrera, eta, hala egiten ez badute, eta ordainketa atzeratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskabiderik ere egiten ez badute, 3. paragrafoan aipatzen diren errekareruak eta berandutze-korrituak betearazte-aldirako ezarritako errekareruekin eta berandutze-korrituekin batera eskatu ahal izango dira.

5. Epez kanpo baina alde aurreko errekerimendurik gabe aurkeztutako aitortpenen likidazioen kasuan, ez da berandutze-korriturik eskatuko aitortpena aurkeztu zenetik borondatezko ordainketarako epea amaitu arte igarotako aldiarengatik. Horrek ez die ezertan eragingo, ordea, aitortpena epez kanpo aurkezteagatik eska daitezkeen errekareruei eta korrituei.

23. artikulua. Gordailua egitea eta bermea ematea.

Tasaren zenbatekoaren gordailua egin daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Diruzaintza Nagusiaren alde, edo tasaren zenbatekoaren bermea eman, eta ordainketaren ondorio berbera izango dute bai batak bai besteak, tasaren egokitasunaz nahiz zenbatekoaz eztabaida sortzen bada. Baldin eta ordainketa egiteko betebeharra duenak ez badu frogatzen errekurtsio egokia legez ezarritako epearen barruan aurkeztu duela, gordailuan utzitako diru-zenbatekoak edo berme gisa emandakoak Euskal Autonomia Erkidegoaren Diruzaintza Nagusian sartuko dira behin betiko.

24. artikulua. Preskripzioa.

1. Tasen arloko eskubide hauek lau urteren buruan galduko dute indarra:

a) Administrazioak tasaren zorra dagokion likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidea.

b) Likidatutako eta autolikidatutako zorren ordainketa eskatzeko Administrazioak duen eskubidea.

c) Administrazioak tributuen arloko zigorrak ezartzeko duen eskubidea.

d) Honako hauek eskatzeko eskubidea: oker egindako diru-sarrerak itzultzea (lege honek ezarritako betebeharren ondorioz baina oker egindakoak) eta emandako bermeen zenbatekoa itzultzea.

d) Honako hauek eskatzeko eskubidea: oker egindako diru-sarrerak itzultzea (lege honek ezarritako betebeharren ondorioz baina oker egindakoak) eta emandako bermeen zenbatekoa itzultzea.

2. Aurreko atalean zehazten diren kasuetan, preskripzio-epea ondoren azaltzen diren arauen arabera hasiko da kontatzen:

a) kasuan, aitorpena edo autolikidazioa aurkeztu beharreko arauzko epea bukatu ondoko egunetik aurrera.

b) kasuan, nor bere borondatez ordaintzeko epea bukatu ondoko egunetik aurrera, artikulua honen 3. idatz-zatian ezarritakoari kalterik egin gabe.

c) kasuan, tributuen arloko arau-hausteak egin ziren une berberetik.

d) kasuan, okerreko diru-sarrera egin ondoko egunetik edo autolikidazioa aurkezteko epea bukatu ondoko egunetik, baldin eta oker egindako diru-sarrera esandako epe horren barruan egina bazen; edo errekurtsioz erasotako egintza guztiz ala hein batean bidegabetzat jotzen duen epaia edo administrazio-ebazpena irmo bihurtu ondoko egunetik.

e) kasuan, bermeen zenbatekoa itzultzeko eskubidea ezagutzen duen erabakia jakinarazi ondoko egunetik.

3. Erantzule solidarioei ordainarazteko preskripzio-epea, zordun nagusiak bere borondatez ordaintzeko epea bukatu ondoko egunetik hasiko da kontatzen.

Ordezko erantzuleen kasuan, zordun nagusiarik edo erantzule solidarioetako edozeini tasak biltzeko azken egintzaren jakinarazpena egin zitzaienetik hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

4. Preskripzio-epeak etetea.

A) Artikulu honen 1. paragrafoko a) idatz-zatiak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea eten egingo da:

a) Administrazioak honako xede hauetako batekin egindako edozein egintzarengatik: zerga-obligazioaren elementu guztiak edo horietako batzuk onartu, erregularizatu, egiaztatu, ikuskatu, ziurtatu edo likidatzea. Beti ere zergapekoak ekintzaren berri behar bezala jakin badu.

b) Erreklamazioak edo errekurtsuak, edozein motatakoak, aurkezteagatik; erreklamazio edo errekurtsu horien harian Administrazioak egindako jarduketengatik, zergapekoak jarduketan berri behar bezala dakielarik; zigor-arloko auzitegiei erruduntasun-testigantza igortzeagatik edo Ministerio Fiskalari salaketa aurkezteagatik; eta, orobat, organo jurisdikzional batek irekita dagoen administrazio-prozedura gelditzeko agintzen duen komunikazioa jasotzeagatik.

c) Tasak eragindako zorra likidatu edo autolikidatze aldera zergapekoak egindako edozein egintza frogagarriengatik.

B) Artikulu honen 1. paragrafoko b) idatz-zatiak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea honako egoera hauetan eteten da:

a) Administrazioak tasaren zorra kobratzeko egindako zernahirengatik, baldin eta egiaz xede horrekin egin bada eta zergapekoak ekintzaren berri behar bezala jakin badu.

b) Erreklamazioak edo errekurtsuak, edozein motatakoak, aurkezteagatik; erreklamazio edo errekurtsu horien harian Administrazioak egindako jarduketengatik, zergapekoak jarduketa horien berri behar bezala dakielarik; zordunaren konkurtsoa deklaratzegatik edo tasak eragindako zorra kobratzea helburu duten ekintza zibil zein penalak gauzatzeagatik; eta, orobat, organo jurisdikzional batek irekita dagoen administrazio-prozedura gelditzeko agintzen duen komunikazioa jasotzeagatik.

c) Tasak eragindako zorra ordaindu edo kitatze aldera zergapekoak egindako edozein egintza frogagarriengatik.

C) Artikulu honen 1. paragrafoko c) idatz-zatiak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea honako egoera hauetan etengo da:

a) Administrazioak tributuen arloko zigorra ezartzeko egindako zernahirengatik, baldin eta zergapekoak egintzaren berri behar bezala jakin badu.

Zergapekoak tributuei buruz duen egoera erregulatzea helburu duten jarduera administratiboek eten egingo dute preskripzio-epea, erregularizatzeko horren ondorioz ezartzen diren tributuen arloko zigorren preskripzio-epea, alegia.

b) Erreklamazioak edo errekurtsuak, edozein motatakoak, aurkezteagatik; zigor-arloko auzitegiei erruduntasun-testigantza igortzeagatik; eta, baita ere, prozedura horien harian auzitegiek egindako jarduketengatik, zergapekoak jarduketa horien berri behar bezala dakielarik.

D) Artikulu honen 1. paragrafoko d) idatz-zatiak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea honako egoera hauetan etengo da:

a) Autolikidazioaren ondorioz ordaindutakoa itzul dakion edo autolikidazioa zuzentze aldera zergapekoak egiten duen edozein ekintza frogagarriengatik.

b) Edozein motatako erreklamazioak edo errekurtsuak aurkeztu, tramitatu edo ebatzteagatik.

E) Artikulu honen 1. paragrafoko e) idatz-zatiak aipatzen duen eskubidearen preskripzio-epea honako egoera hauetan etengo da:

a) Administrazioak zergapekoari ordaindutakoa itzultzeko egindako zernahirengatik.

b) Ordaindutakoa itzul dakion eskatze aldera zergapekoak egindako edozein egintza frogagarriengatik.

c) Edozein motatako erreklamazioak edo errekurtsioak aurkeztu, tramitatu edo ebazteagatik.

5. Etenez gero, preskripzio-epea berriz hasiko da; badu salbuespen bat horrek, hurrengo paragrafoan aipatzen dena, hain zuzen.

6. Preskripzio-epea beste era hauetan eteten bada, hots, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioari errekurtsioa aurkezteagatik, ekintza zibil edo penalak gauzatzegatik, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari igortzeagatik, Ministerio Fiskalari salaketa aurkezteagatik, edo prozedura geldiarazteko agintzen duen komunikazio judiziala jasotzeagatik, hona noiz hasiko den berriro preskripzio-epea: Administrazioak prozesu judizialari amaiera ematen dion edo administrazio-prozedura geldiarazteko agindua kentzen duen ebazpen irmoa jasotzen duenean, edota Ministerioa Fiskalak espedientea atzera itzultzen duela jakinarazten duenean.

Preskripzio-epea zordunaren konkurtsoa deklaratzegatik eteten bada, hona noiz hasiko den berriro preskripzio-epea: konkurtso-prozesutik kanpo dauden tributuzorretarako konkurtso-hitzarmena onartzen den unean. Konkurtso-hitzarmenaren pean dauden tributuzorrei dagokienez, zordunari zorrak eskatu ahal zaizkion unean hasiko da berriro preskripzio-epea. Hitzarmena onartzen ez bada, ez onartze hori adierazten duen ebazpen judizial irmoa jasotzen denean hasiko da berriro preskripzio-epea.

Baldin eta administrazioarekiko auzi bidean preskripzio-epea etetea erabaki ez bada, paragrafo honetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko Administrazioak ordainketa exijitzeko duen eskubideari.

7. Preskripzio-epea zergapeko batentzat eteten bada, berdin etengo da gainerako zergapekoentzat, are erantzuleentzat ere. Dena den, betebeharra partekatuta egonez gero eta dagokion zatia zergapeko bakar bati ez beste inori erreklamatzuz gero, epea ez da etengo gainerakoentzat.

Tasa ordaintzeko betebeharra duen baten kontura hainbat zor likidatu baldin badira, zor bakoitzak bere preskripzio-epea izango du eta dagokion zorraren preskripzio-epea baizik ez da etengo.

8. Tasa ordaintzeko betebeharra dutenetako baten aldeko preskripzioak ondorio berberak sortzen ditu ordaintzeko betebeharra duten guztientzat, aurreko 7. atalean xedatutakoari eragin gabe.

9. Preskripzioa Administrazioaren kabuz aplikatuko da, baita tasak eragindako zorra ordainduta dagoenean ere, zergapekoak eskatu beharrik gabe edo beraren kontra egindako erreklamazioan babes-argudio gisa erabili beharrik gabe.

10. Zergapekoaren aldeko preskripzioak ezabatu egiten du tasak eragindako zorra.

25. artikulua. Zorra barkatzea.

Tasak eragindako zorra ezingo da legez baino barkatu, eta lege horrek zehazten dituen neurri eta baldintzekin barkatuko da.

26. artikulua. Zorraren behin-behineko kitatzea.

Subjektu pasiboaren eta gainontzeko erantzuleen kaudimen-gabezia frogatuagatik hasitako ordainarazpen-prozeduretan ordainarazi ezin izan diren zorrak behin-behingoan kitaturik

daudela joko da, dagokion zenbatekoan, harik eta preskripzio-epearen barruan berritzen diren arte.

27. artikulua. Erreklamazioak eta errekurtsioak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere kabuz edo doakionak eskatuta, likidazioetan atzemandako akatsak zuzenduko ditu, hala egitezkoak edo materialak eta aritmetikazkoak, baldin eta preskripzio-epea igarota ez badago.

2. Tasak kudeatzeko egintzen aurka, aurretiazko eta aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio tasa hori kudeatzen duen organoari.

3. Berraztertze errekurtsioari buruzko ebazpenaren aurka edota kudeaketa-egintzen aurka (baldin eta errekurtsorik aurkeztu ez bada), erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Euskadiko Auzitegi Ekonomiko Administrazioari, auzitegi hori arautzen duten arauari jarraituz.

4. Erasotako egintzaren betearazpena eten egingo da interesatuak eskatu eta besterik gabe, baldin eta egintza horren zenbatekoa, etendurak sor ditzan berandutze-korrituak eta etendura eskatzeko unean bidezkoak diren errekursioak bermatzen badira.

Egintzaren aurka jotzea tributuen arloko zigor batengatik bada, zigor horren betearazpena eten egingo da, besterik gabe, eta bermerik eman beharrik ere ez da izango gainera.

5. Erreklamazio ekonomiko-administrazioari buruzko ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea, eta ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ezarri ahal izango da.

28. artikulua. Tasen arloko zigorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren tasen inguruko arau-hauste eta zigorren kasuan, lege honetan edo tasa bakoitzaren legean jartzen duena bete beharko da, eta halako legerik ez badago, tributuen arloko arau-hauste eta zigorren erabateko erregimenak zehazten duen araudia bete beharko da.

29. artikulua. Nortasuna egiaztatzea.

Tasei buruzko zeinahi agiritan, tasak kudeatzen dituen organoaren edo erakunde autonomiadunaren izena jaso beharko da. Tasa, berriz, lege honetan eta aurrerantzean tasa bera sortzen duen legean ematen zaion izenarekin agertu beharko da.

II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOAK (lehen III. titulua)

30. artikulua. Prezio publikoa zer den.

Prezio publikotzat joko dira zuzenbide publikopeko jardueren edo zerbitzuen trukean ematen diren diru-sariak, baldin eta lege honen 4. artikulua araberago bada.

31. artikulua. Eskumena.

Prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituzte, elkarrekin, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta kasuan kasuko sailak, hots, zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak.

32. artikulua. Zenbatekoa.

1. Prezio publikoak kasuan kasuko jarduerak gauzatzearen edo zerbitzuak ematearen kostuak berdintzeko adinakoak izango dira, gutxienez, eta zenbateko zehatza erabakitzeko, kontuan izango da, betiere, jarduera edo zerbitzu horiek gizarteari dakarkioten onura.
2. Gizartearekin, ongintzarekin, kulturarekin edo herri-onurarekin zerikusia duten arrazoiak direla eta, aurreko puntuan aurreikusitakoak baino prezio publiko merkeagoak ezar daitezke, diruz lagundutako prezioaren parte aurrekontuaren zein diru-sailetatik zuzkituko den erabaki ondoren.
3. Halaber, eta aurreko puntuan aurrekontu-zuzkiduraz esandakoaren ildotik, ordaintzera beharturik daudenen egoera edo jardueren ezaugarri bereziak kontuan harturik, prezio publikoen salbuespenak eta hobariak ezarri ahal izango dira. Prezio horiek, ezartzen dituen xedapenaren bidez ezarriko dira.

33. artikulua. Prezio publikoak ezartzea.

1. Lege berezi batean bestelakorik ezarri ezean, prezio publikoak honela ezarri edo aldatuko dira:
 - a) Prezioa kobratu behar duen organo edo erakundearen gaineko sailburuaren aginduz, organo edo erakunde horrek proposaturik.
 - b) Merkataritzako erakunde autonomoek zuzenean ezarri edo aldatuko dituzte beren ardurapeko zerbitzuei edo ondasunei dagozkien prezioak, beren gainean dagoen sailak baimena eman ondoren.
2. Prezio publikoak ezarri edo aldatzeko proposamenarekin batera, ekonomi eta finantza-txostena aurkeztuko da, non prezioen zenbatekoak eta kostuen finantzaketa-maila justifikatuko baitira.
3. Prezio publikoak ezarri edo aldatzeko proposamenen onarpenarekin batera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren txosten loteslea joango da.
4. Prezio publikoen zenbatekoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, hala lehen aldiz ezartzen direnean nola aldatzen direnean.

34. artikulua. Prezio publikoak kudeatu eta kobratzea.

1. Prezio publikoak jaso behar dituzten sailak edo erakundeak izango dira horiek kudeatu eta kobratuko dituztenak.
2. Hona zein unetan eskatuko den prezio publikoa ordaintzea: hura ordaindu beharra eragiten duten ondasunak ematean edo zerbitzuak ematen hastean.
3. Prezio publikoak ordaintzeko erak Lege honen 21. artikuluan zehazten dira.
4. Prezio publikoen zenbatekoa, osoa edo zati bat, aldeztatik ordaintzeko eskatu ahal izango da.
5. Administrazioak frogagiri bat emango du ordainketaren trukean. Frogagirian, ondoko xehetasun hauek agertuko dira:
 - Frogagiria ematen duen organoa edo erakundea zein den.
 - Zordunaren izen-deiturak edo baltzu-izena, identifikazio fiskalaren zenbakiarekin batera.
 - Helbidea.
 - Kontzeptua.

- Prezio publikoaren zenbatekoa, kobrantza-eguna eta prezio publikoa zein eperi dagokion.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eragiketari hala dagokionean eta salbuetsita ez dagoenean.

Ez da izango zordunaren xehetasunak frogagirian jarri beharrik emandako zerbitzuak honako hauek direnean: pertsonak eta haien fardelak garraiatzea, ibilgailuak aparkatzea eta ikuskizun publikoak.

6. Prezioa ordaintzera behartutakoari egoztekoak ez diren arrazoiengatik jarduera egiterik ez dagoenean, edo zerbitzua ematen ez denean, dirua atzera itzuli beharko da, edo, ikuskizunak baldin badira, sarrerak trukatu egingo dira, ahal denean.

7. Prezio publikoengatik zor direnak premiamendu bidezko administrazio-prozeduraren bitartez erreklamatu ahal izango dira, prezio publikoaren berariazko arauetan diru-sarrera egiteko ezarritako epea amaitutakoan, edo, horrelako araurik ezean, diru-bilketari buruzko arauetan erabat ezarritako epea bukatu eta gero.

8. Ogasun eta Herri Administrazio Sailak prezio publikoa geroago edo zatika ordaintzeko baimena eman dezake, ordaintzeko behartuta dagoenak aldeztatik horrela eskatuta. Tasetarako ezarritako baldintza berberak bete beharko dira horretarako.

9. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomoek prezio publikoak aitortu edo likidatzeko duten eskubidea lau urteren buruan preskribatuko da. Eskubidea gauza zitekeen egunetik aurrera hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

10. Lege honetan berariaz aurreikusi gabeko orotan, prezio publikoen administrazioa eta kobratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean ezarritakoari jarraituz egingo dira.

35. artikulua. Erreklamazioak.

Prezio publikoei buruzko administrazio-egintzen aurka, aldeztu aurreko eta aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo kudeatzaileari, eta Administrazioarekiko diru-erreklamazioa Euskadiko Auzitegi Ekonomiko Administrazioari.

III. TITULUA. IZAERA OROKORREKO TASAK

I. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HORREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEAK HAUTATZEKO DEIALDIETAN IZENA EMATEKO TASA.

36. artikulua. Zergapeko egitatea.

Hona hemen tasa honen zergapeko egitatea zein den: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek langileak hautatzeko probak egiteko eskaintzen dituzten zerbitzuak, zehazki, jarduera hauek:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren erakunde autonomoek langileak hautatzeko egiten dituzten hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabidea interesatuei ematea.
- b) Interesatuaren eskabideak jaso eta aztertzea.

37. artikulua. Subjektu pasiboa.

Hona hemen zein diren tasa honen subjektu pasiboak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horren erakunde autonomoek langileak hautatzeko egiten dituzten deialdietan parte hartzeko eskabideak eskuratzen dituztenak.

38. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra sortuko da eskabidea eskuratzen den edo aurkezten den momentuan, beti ere zergapeko egitearen arabera.

39. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

| | |
|--|-------|
| 1. Eskabide-orriak eskuratzea: | 0,64 |
| 2. Eskabide-orriak aurkeztea. | |
| 2.1 Goi-Mailako Teknikariak: | 19,55 |
| 2.2 Erdi-Mailako Teknikariak: | 16,30 |
| 2.3. Goi-mailako batxilerra, lanbide-heziketako goi-mailako teknikaria edo horien parekoa: | 13,02 |
| 2.4. eskola-graduatu, lanbide-heziketako teknikari laguntzailea edo horien parekoa: | 9,76 |
| 2.5. eskola-ziurtagiria: | 6,51 |

II. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO-ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

40. artikulua. Zergapeko egitatea.

1. Tasa honen zergapeko egitatea hau da: Administrazio Orokorraren sailek eta horren erakunde autonomoek honako zerbitzu hauek eskaintzea:

- a) Benetako kopiak, benetakotzat egiaztatutako kopiak eta jatorrizkoarekin erkatutako kopiak ematea.
- b) Liburuei dagozkien zuzemenak egitea.
- c) Erregistro eta errolda ofizialetan inskribatzea.
- d) Esku-emateen agiriak eta legezko gaitasunaren egiaztagiriak askiestea.
- e) Izenpeak egiazkoak direla egiaztatzea.

2. Zerbitzu hauek ez dira tasa honen pean egongo baldin eta, berariaz, lege honetan aurreikusitako tasen arteko beste baten pean badaude.

41. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak 40. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren zerbitzuak jasotzen edo eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

42. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren administrazio-zerbitzuak ematen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzeko.

43. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

| | |
|---|----------|
| 1. Benetako kopiak, benetakotzat egiaztatutako kopiak eta jatorrizkoarekin erkatutako kopiak ematea. | |
| 1.1 Kopia bakoitzeko: | 3,19 |
| 1.2 Egiaztatu beharreko agiriaren orri gehigarri bakoitzeko, honenbeste gehituko da: | 0,318899 |
| 2. Zuzemenak egiteko aurkezten diren kontabilitate-liburuak, aktak edo beste zernahi: Agiri bakoitzeko: | 3,19 |
| 3. Erregistro eta errolda ofizialetan inskribatzea. Inskripzio bakoitzeko: | 3,19 |
| 4 Esku-emateen agiriak eta legezko gaitasunaren egiaztagirak askiestea. Agiri bakoitzeko: | 3,19 |
| 5. Izenpeak egiazkoak direla egiaztatzea. Egiazkotzat egiaztatutako izenpe bakoitzeko: | 3,19 |

44. artikulua. Salbuespenak.

Ez dute tasa hau ordaindu beharrik izango:

- a) Administrazio langileek, beren lanpostuaren beharrei buruzko ziurtagiriak eskatzen dituztenean edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela-eta ordainsariak frogatzeko ziurtagiriak eskatzen dituztenean.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoak emandako dirulaguntzekin, emaitzekin edo bekekin zerikusia duten zerbitzuak baliatzen dituzten banakoek.
- c) Kontratuak esleitzeko lehiaketetan parte hartzen dutenek ere ez, kontratazio-espedituekin zerikusia duten zerbitzuengatik.
- d) Enpresariak ere ez, Kontratisten Erregistro Ofizialak egindako zerbitzuengatik.
- e) Atzerrian eragina izan behar duten dokumentuei dagokienez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak euskal administrazio publikoetako agintarien sinadurak benetakoak direla egiaztatu dezala eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen, publiko nahiz pribatuen.
- f) Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroak ematen dituen zerbitzu administratiboak eskatzen dituzten pertsonak.
- g) Industria Establezimenduen Erregistroak ematen dituen administrazio-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak.

45. artikulua. Tasa likidatzea.

Subjektu pasiboek tasaren zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute autolikidazioaren bitartez; era horretan zehaztutako zorra erregelamenduz zehaztutako tokian, moduan eta epeen barruan ordaindu beharko dute.

III. KAPITULUA. OBRA PUBLIKOAK ZUZENDU ETA IKUSKATZEKO TEKNIKARI-LANAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

46. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: hirugarren batzuek, kontratu bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko obrak zuzendu edo ikuskatzeko teknikari-lanak egitea.

47. artikulua. Subjektu pasiboa.

Honako hauek dira tasa honen subjektu pasiboak: aurreko artikuluan aipatzen diren enkante, lehiaketa eta zuzeneko kontratazioak esleitzen zaizkien kontratistak.

48. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zerbitzua egiten den momentuan sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, eta tasaren likidazioa, berriz, ziurtapen edo egiaztapen bakoitzarekin egin beharko da.

Hona noiz eskatu ahal izango den tasa ordaintzea: tasa nork bere borondatez ordaintzeko epearen barruan, tasaren likidazioa jakinarazi eta hurrengo hamabost egunen barruan.

49. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

1. Tasa honen zerga-oinarria kontratuaren prezioa da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta tasa hau sartu gabe; prezioa obraren zatiak jaso izanaren ziurtagirien bidez egiaztatzen da. Orobat, zerga-oinarrian sartuko dira, hala dagokionean, prezioak berraztertzeagatik eta lanak likidatzeagatik dagozkion zenbateko gehigarriak.

2. Karga-tasa % 4 izango da.

IV. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JABETZA PUBLIKOKO ONDASUNAK NORK BERETZAT ERABILTZEAGATIK EDO ONDASUN HORIEI ONURA BEREZIREN BAT ATERATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

50. artikulua. Zergapeko egitatea.

1. Honako hau da tasaren zergapeko egitatea: Euskadiren Ondareko jabetza publikoko ondasunak nork beretzat erabiltzea edo ondasun horiei onura bereziren bat ateratzea. Erabilera edo onura horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren organo eskudunek emandako kontzesio edo baimenen bitartez eskuratua behar du izan, Euskadiren Ondarea arautzen duen Legeak xedatutakoaren arabera.

2. Jabetza publikoko ondasunak nork beretzat erabiltzea edo ondasun horiei onura berezia ateratzea ez da tasa honen pean egongo, baldin eta erabilera edo onurok lege honetan aurreikusitako beste tasaren baten pean badaude berariaz.

51. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak kontzesioen edo administrazio-baimenen esleipendunak dira, edo, hala balegokio, subrogazioz aurreko horien lekua hartzen dutenak.

52. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra sortuko da zergapeko egitateak aipatzen dituen titulu horiek ematen diren unean bertan.

Kontzesioak edo baimenak indarrean dirauen aldian, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharrak hori.

53. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

1. Jabari publikoko ondasunak nork beretzat erabiltzen dituenean, honela kalkulatu da eskatu ahal den urteko tasaren zenbatekoa: erabilitako ondasunek Euskadiren Ondareko Ondasun Eta Eskubideen Inbentario Erabatekoaren arabera duten balio eguneratuari % 5 aplikatuko zaio, kontuan hartuz zer lur-eremu okupatzen den eta eraikina edo higieztina non dagoen kokaturik.

2. Jabetza publikoko ondasunei onura bereziak ateratzen zaizkionean, honela kalkulatu da eskatu ahal den urteko tasaren zenbatekoa: zerga-oinarriari % 5 aplikatuko zaio, eta onuraren zenbatekoa hartuko da erreferentzia gisa.

3. Kontzesioaren edo baimenaren lehenbiziko urtean, honako hau izango da eskatu ahal den tasaren zenbatekoa: tasak urte horretan indarrean egin duen aldiari eta aurreko paragrafoen arabera ateratako emaitzari heinean dagokiena. Era berean, kontzesioak edo baimenak indarrean irauten duen azken urtean ere heinean banatzeko irizpide hori berori aplikatuko da.

4. Baimena edo kontzesioa esleitzearekin batera onuradunari betebeharrak eta ordainak ezartzen zaizkionean, eta, horien ondorioz, hark ateratzen duen onura ekonomikoa urritzen bada, zerga-oinarria ere urritu egingo da hein berean, 54. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

54. artikulua. Salbuespenak.

Jabari publikoko ondasunak norik beretzat erabili arren edo ondasun horiei onura berezia atera arren ez da tasa hau ordaindu beharko, baldin eta:

- a) Dohainik emandako baimenen edo kontzesioen ondorioa bada erabilera edo onura hori.
- b) Onura edo erabilera horrek ez badakarte onura ekonomikorik onuradunarentzat, edo, onura ekonomikoa ekarri arren, trukean ezarritako baldintzek edo ordainek onura ekonomiko hori ezabatzen edo erabat urritzen badute.

Ezaugarri horiek adierazi egin beharko dira erabilera edo onura berezi hori esleitzen duen tituluan edo baldintzen orrian.

55. artikulua. Tasa likidatzea.

Kontzesioak eta baimenak urtebeteko aldietarako edo aldi luzeagoetarako ematen direnean, tasaren likidazioa hiru hilean behin egingo da, likidazio aurreratu gisa. Urtarrilean, apirilean, uztailean eta urrian egingo dira hiru hilez behingo likidazio aurreratuak.

Gainerako kasuetan, tasa ordaintzeko betebeharrak sortzen den unean bertan likidatuko da.

V. KAPITULUA. EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIAREN ONDASUN ETA ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

56. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasaren zergapeko egitatea:

- a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren paperezko aleak erostea.
- b) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren II. sailean (Agintariak eta Langileria) eta V. sailean (Iragarkiak) testuak argitaratzea.

57. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren ondasunak eta zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira.

Aurreko hori gorabehera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoek izapidetutako administrazio-kontratazioari dagozkion prozeduretako lehiaketei buruzko xedapenak eta iragarkiak argitaratzen direnean, Administrazio Orokorra bera izango da subjektu pasiboa.

58. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharrak.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak edo ondasunak hartzean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Nolanahi ere, eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

59. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Aldizkariaren paperezko aleak eskuratzea.
 - 1.1. Harpidetza.
 - Urtekoa: 223,45
 - Urtea baino aldi txikiagokoa, urtea amaitu arteko hilabete bakoitzeko 18,64
 - 1.2. Ale askeak, eguneko ale bakoitzeko, zenbat faszikulu edo eranskinek osatzen duten kontuan hartu gabe: 1,28
2. Agiriak argitaratzea.
 - 2.1. Oro har.

Aldizkarian argitaratutako lerro edo lerro-zati bakoitzeko: 2,563702 (orrialde inprimatu osoak 60 lerro dituela joko da)
 - 2.2. Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek xedapenak eta administrazio-kontratuen lehiaketa-iragarkiak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren VII. eranskinean ezarritako ereduekin bat etorritakoak.

iragarki bakoitzeko: 383,05
3. Presazko izaera duten iragarkiak 10 egun balioduneko epean argitaratuko dira, txertatzeko agindua berresten denetik. Horrela argitaratutako iragarkiengatik ordaindu beharreko tasa ohikoa baino ehuneko ehun handiagoa izango da.

60. artikulua. Salbuespenak. (lehen 58. artikuluko 3. paragrafoa)

Lege honen 16. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorritik, honako subjektu pasibo hauek baizik ez dira salbuetsiko tasa honetatik:

- a) Banaketa ofiziala egiten zaien erakunde eta entitateak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialaren paperezko aleak erosten dituztenean; erakunde gisa duten garrantziagatik, zerbitzu publikoa hobetzeagatik edo erakunde horien argitarapenak tasarik gabe jasotzen direla-eta berdin jokatzeko ezartzen da salbuespen hau.
- b) Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialaren II. atalean (Agintariak eta Langileria) eta V. Atalean (Iragarkiak) testuak argitaratzen dituztenean; ez dira salbuespen honetan sartuko administrazio-kontratazioari dagozkion prozeduretako lehiaketei buruzko xedapenak eta iragarkiak.

VI. KAPITULUA. KIROL ELKARTEEN ETA FEDERAZIOEN ERREGISTROAREN JARDUNARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

61. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hauek dira tasaren zergapeko egitatea: indarrean dauden xedapenekin bat etorritik Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroan legez tatu edo inskribatu behar diren egintza,

gertakari eta dokumentuen inskripzioa, egiaztapena eta erkatzea, eta, orobat, liburuak legeztatzea.

62. artikulua. Subjektu pasiboa.

Aurreko artikuluan aipatzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

63. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren administrazio-zerbitzuak eskaintzen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

64. artikulua. Kuota.

Tasa honako tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroa.

| | |
|--|------|
| 1. Eraketaren inskripzioagatik: | 3,60 |
| 2. Herri-onuraren adierazpenaren inskripzioagatik: | 7,22 |
| 3. Bestelako inskripzio bakoitzagatik: | 2,81 |
| 4. Egiaztapen edo agiri-erkatze bakoitzeko: | 2,68 |
| 5. Liburuaren legeztapen bakoitzeko: | 2,68 |

65. artikulua. Tasa likidatzea.

Subjektu pasiboek tasaren zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute autolikidazioaren bitartez; era horretan zehaztutako zorra erregelamenduz zehaztutako tokian, moduan eta epeen barruan ordaindu beharko dute.

IV. TITULUA. EZAGUTZAK EGIAZTATZEAGATIKO TASAK ETA GORABEHERRA PERTSONALEN INGURUKO TASAK

I. KAPITULUA. TITULU AKADEMIKOAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

66. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak tituluaren espedienteak eta inprimakiak egin eta tituluak eta haien kopiak ematea da.

67. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak aipatutako titulu akademikoak eta haien kopiak eskatzen dituztenak dira.

68. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra tituluak ematean sortuko da. Hala ere, agiria emateko eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

Titulua Administrazioak bere kabuz ematen badu, tituluak eskatzen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, eta une horretantxe eskatuko da tasa ordaintzea.

69. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zebatekoa (eurotan):

| | Jatorrizkoak | Kopiak |
|--|--------------|--------|
| 1. BBB eta UBI mailletako ikastetxeak | | |
| 1.1. goi-mailako batxilergoko titulua | 36,42 | 3,25 |
| 1.2. oinarrizko mailako batxilergoko titulua..... | 15,07 | 1,75 |
| 2. Lanbide-heziketako ikastetxeak. | | |
| 2.1. industria maisuaren titulua | 36,42 | 3,25 |
| 2.2. Teknikari espezialistaren titulua LH-2 | 36,42 | 3,25 |
| 2.3. industri ofizialtzako titulua | 15,07 | 1,75 |
| 2.4. Eskola-ziurtagiria LH-1..... | 7,10 | 1,41 |
| 2.5. Teknikari espezialistaren titulua LH-1 | 15,07 | 1,75 |
| 3. Musika-kontserbatorioa. | | |
| 3.1. goi-maila | | |
| 3.1.1. Goi-mailako irakaslearen titulua | 87,26 | 19,51 |
| 3.2. lanbide-heziketako maila | | |
| 3.2.1. Profesional titulua | 87,26 | 19,51 |
| 3.2.1. Irakasle titulua | 43,68 | 19,51 |
| 3.2.3. Tresna-jotzailearen edo kantariaren diploma | 20,85 | 1,88 |
| 3.2.4. Gaitasun-diploma (42. urtea baino lehenagoko planetakoak)..... | 87,26 | 19,51 |
| 3.3. oinarrizko maila | | |
| 3.3.1. Diploma..... | 8,91 | 0,82 |
| 4. Hizkuntza-eskola ofiziala. | | |
| 4.1. Gaitasun-agiria..... | 18,14 | 1,69 |
| 5. Euskal gaitasunaren agiria - EGA | | |
| 5.1. EGA ziurtagiria | 18,14 | 1,69 |
| 6. Arte aplikatuetako eta lanbide artistikoetako eskola. | | |
| 6.1. arte aplikatuetako graduatuaren titulua | 36,42 | 3,25 |
| 7. Araubide orokorreko irakaskuntzak - LOGSE | | |
| 7.1. batxiller titulua..... | 36,42 | 3,25 |
| 7.2. teknikari titulua | 15,07 | 1,75 |
| 7.3. goi-mailako teknikariaren titulua | 36,42 | 3,25 |
| 8. Araubide orokorreko irakaskuntzak - LOGSE | | |
| 8.1. arteen irakaskuntzak- logse | | |
| 8.1.1. Musikako lanbide-titulua | 36,42 | 3,25 |
| 8.1.2 Goi-mailako musika-titulua..... | 87,26 | 19,51 |
| 8.1.3 Dantzako lanbide-titulua | 36,42 | 3,25 |
| 8.1.2 Goi-mailako dantza-titulua. | 87,26 | 19,51 |
| 8.1.5 Oinarrizko mailaren egiaztagiria | 8,91 | 0,82 |
| 8.2. arte plastikoak eta diseiuna | | |
| 8.2.1. Erdi-mailako prestakuntza-ziklo esperimentalak | | |
| 8.2.1.1. Teknikari titulua | 15,07 | 1,75 |
| 8.2.2. Goi-mailako prestakuntza-ziklo esperimentalak | | |
| 8.2.2.1.. Goi-mailako teknikariaren titulua | 36,42 | 3,25 |
| 8.2.3. Erdi mailako prestakuntza-zikloak | | |
| 8.2.3.1. Teknikari titulua | 15,07 | 1,75 |
| 8.2.4. Goi-mailako prestakuntza-zikloak | | |

| | | |
|---|-------------|-------|
| 8.2.4.1. Goi-mailako teknikariaren titulua | 36,42 | 1,75 |
| 8.2.5.Arte plastiko eta diseinuko goi-mailako ikasketak | | |
| 8.2.5.1. Arte plastiko eta diseinuko goi-mailako titulua... | 87,26 | 19,51 |
| 8.2.6. Kirolen irakaskuntza | | |
| 8.2.6.1. Teknikari titulua | 15,07 | 1,75 |
| 8.2.4.1. Goi-mailako teknikariaren titulua | 36,42 | 1,75 |
| 9. Hizkuntzen irakaskuntza LOGSE | | |
| 9.1. Gaitasun-agiria..... | 18,14 | 1,69 |

70. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

1. Kuotatik guztiz salbuetsita egongo dira bigarren kategoriako kide anitzeko familietako kideak.
2. Kuotaren % 50eko hobaria izango dute lehenengo kategoriako kide anitzeko familietako kideak direla egiaztatzen duten eskatzaileek.

II. KAPITULUA. EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEKO AGIRIAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

71. artikulua. Zergapeko egitatea.

Helduei euskara irakasteko programen oinarrizko curriculumeko mailaren bati dagozkion egiaztagirien espedienteak eta inprimakiak egitea, egiaztagiriak eurak ematea eta egiaztagiri horien kopiak ematea (guztiak ere euskararen ezagutza egiaztatzeko) izango da tasa honen zergapeko egitatea. Kultura Sailari dagokio zerbitzu horiek ematea.

72. artikulua. Subjektu pasiboa.

Egiaztagiriok edo horien kopiak egiteko eskatzen dutenak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

73. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra tituluak ematean sortuko da. Hala ere, agiria emateko eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

74. artikulua. Kuota.

Hona hemen tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Jatorrizko egiaztagiriak: 18,14
2. Kopiak: 1,69

III. KAPITULUA. ASEGURU BITARTEKARI TITULUDUNAREN DIPLOMA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

75. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: Aseguru Bitartekari Tituludunaren Diploma emateko espedientea egitea.

76. artikulua. Subjektu pasiboa.

Aseguru Bitartekari Tituludunaren Diplomari dagokion espedientea hasteko eskatzen duten pertsonak dira tasa honen subjektu pasiboak.

77. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Aseguru Bitartekari Tituludunaren Diplomari dagokion espedientea hasteko eskabidea aurkezten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

Aseguru Bitartekari Tituludunaren Diploma ez da emango tasa ordaintzen ez den bitartean.

78. artikulua. Kuota.

Tasaren zenbatekoa 25,01 euro izango da.

IV. KAPITULUA. LAKETONTZIAK ERABILTZeko TITULUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

79. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: laketontziak erabiltzeko behar diren tituluak eman, berritu eta baliozkotzeko eta horien kopiak egiteko zerbitzuak eta tituluak lortzeko azterketetan parte hartzeko zerbitzuak ematea.

80. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak eskatu edo jasotzen dituztenak dira.

81. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

82. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Azterketa teorikoa egiteko:
 - 1.1 Yate-kapitaina: 54,27
 - 1.2 Yate-burua: 44,68
 - 1.3 Laketontzi-burua: 35,12
 - 1.4 Oinarrizko nabigaziorako ontziaren burua: 28,73
2. Azterketa praktikoa egiteko:
 - 2.1 Yate-kapitaina: 54,27
 - 2.2 Yate-burua: 44,68
 - 2.3 Laketontzi-burua: 35,12
 - 2.4. Oinarrizko nabigaziorako ontziaren burua: 28,73
3. Kirol-arloko tituluak ematea.
 - 3.1 Yate-kapitaina: 38,30
 - 3.2 Yate-burua: 25,54
 - 3.3 Laketontzi-burua: 19,17
 - 3.4. Oinarrizko nabigaziorako ontziaren burua: 15,98
 - 3.5. Lehen mailako kirol-urpekaria: 19,17
 - 3.6. Bigarren mailako kirol-urpekaria: 19,17
 - 3.7. kirol-urpekaritzako irakaslea: 19,17
4. Kirol-arloko tituluak berritzea:

| | |
|--|------|
| 4.1 Yate-kapitaina: | 3,19 |
| 4.2 Yate-burua: | 3,19 |
| 4.3 Laketontzi-burua: | 3,19 |
| 4.4. Oinarrizko nabigaziorako ontziaren burua: | 3,19 |
| 5. Administrazio-zerbitzuak. | |
| 5.1. Baliozkotze bakoitzeko: | 3,85 |
| 5.2. Tituluaren kopia bakoitzeko: | 3,19 |
| 5.3. Ziurtagiri bakoitzeko: | 3,19 |

V. KAPITULUA. "GAZTE TXARTELA" EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

83. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Txartela/Carné Joven txartela egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea da, interesatuak eskatuta ematea, hain zuzen.

84. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak dira, Euskadiko "Gazte Txartela" arautzen duen araudian ezarritako baldintzak beteta, txartela beren izenean eman dakiela eskatzen duten pertsona fisikoak.

85. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da.

86. artikulua. Kuota.

Tasaren zenbatekoa 5 euro izango da.

VI. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN NAZIOARTEKO EZAGUTZA DUTEN ATERPEKIDE-TXARTELAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA.

87. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea aterpekide-txartel hauek eta ongi-etorriko zigilu hauek emateko behar diren zerbitzuak ematea da, interesatuak eskatuta ematea, hain zuzen ere:

- a) Aterpekide gazteen nazioarteko txartela
- b) Aterpekide helduen nazioarteko txartela.
- c) Familientzako nazioarteko aterpekide-txartela.
- d) Taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela.
- e) Bizilekua Espainian ez dutenentzat ongietorri-zigiluak, ostatu hartzeko balio dutenak.

88. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak dira, txartel mota bakoitzaren onuradun izateko adinaren aldetik edo gizataldearen aldetik behar diren betebeharrak betez, txartela beren izenean eman dakiela eskatzen duten pertsona fisikoak.

89. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

90. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Aterpekide gazteen nazioarteko txartela: 5,00
2. Aterpekide helduen nazioarteko txartela: 11,00
3. Familientzako nazioarteko aterpekide-txartela: 22,00
4. Taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela: 15,00
5. Bizilekua Espainian ez dutenentzat ongietorri-zigiluak, ostatu hartzeko balio dutenak:
..... 3,00

91. artikulua. Hobariak.

Hobari hauek izango dituzte:

- a) "Gazte txartela" edo gazteentzako txartel baliokideren bat dutenek aterpekide gazteen nazioarteko txartela emateagatik ordaindu beharreko kuotaren % 50.
- b) Irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateek taldeentzako nazioarteko aterpekide-txartela emateagatik ordaindu beharreko kuotaren % 100 baldin eta formalki eratuta eta dagokion erregistroan inskribatuta badaude eta beren helburu nagusia Euskal Herrian gazteriaren edo gizarte-ekintzaren esparruan jardutea bada.

VII. KAPITULUA. "INTERNATIONAL STUDENT TRAVEL CONFEDERATION" (ISTC) ELKARTEAREN NAZIOARTEKO ABANTAILEN TXARTELA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

92. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea nazioarteko onuren txartel hauek emateko behar diren zerbitzuak ematea da, interesatuak eskatuta ematea, hain zuzen ere:

- a) Ikaslearen Nazioarteko Txartela (ISTC).
- b) Nazioarteko irakasle-txartela (ITIC)
- c) Gazteentzako nazioarteko bidaia-txartela (IYTC/GO'25).

93. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak dira, txartel mota bakoitzaren onuradun izateko adinaren aldetik behar diren betebeharrak eta arauz ezarritako beste batzuk betez, txartela beren izenean eman dakiela eskatzen duten pertsona fisikoak.

94. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

95. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Nazioarteko ikasle-txartela (ISTC) 6,00

2. Nazioarteko irakasle-txartela (ITIC)8,00
 3. Gazteentzako nazioarteko bidaia-txartela (IYTC/GO'25).6,00

V. TITULUA. TRAFIKOARI, JOKO ETA IKUSKIZUNEI ETA SEGURTASUN PRIVATUARI DAGOZKIEN TASAK

I. KAPITULUA. TRAFIKOAREN INGURUKO JARDUERA ETA ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

96. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Trafiko Zuzendaritzak egiten dituen jarduerak edo zerbitzuak dira. Hona hemen jarduerok edo zerbitzuok:

- a) gidari-eskola pribatuak.
- b) Ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzua.
- c) Ibilgailuen gordailu-zerbitzua.
- d) Bidezaingoko zerbitzu askotarikoak.

97. artikulua. Subjektu pasiboa.

Honako hauek dira tasa honen subjektu pasiboak: zergapeko egitate diren administrazio-jarduerak edo -zerbitzuak eskatu edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

98. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

99. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Gidari-eskola pribatuak.
 - 1.1. Gidari-eskola pribatuak edo eskola horien sailak irekitzeko baimena ematea: 232,73
 - 1.2 Gidari-eskola pribatuetako langileei edo gauzei dagozkienak aldatzeagatik ematen den baimena.
 - 1.2.1. Ikuskapenik gabe: 23,10
 - 1.2.2. Ikuspenarekin: 71,07
 - 1.3. Gidari-eskola pribatuetako zuzendari eta irakasle izateko gaitasun-agiriak ematea eta Herrizaingo Sailak eman beharreko beste titulu batzuk ematea, bai eta horien kopiak ere: 57,12
 - 1.4. Bidean aritzeko prestakuntzako irakaslearen gaitasun-agiria lortzeko prestakuntza-ikastaroak.
 - 1.4.1 izena ematea: 8,60
 - 1.4.2 Urrutitiko hezkuntzako aldiak: 43,09
 - 1.4.3 Ikastegiko aldia: 129,38
 - 1.5 Gidari-eskola pribatuko irakaslearen gaitasun-agiria lortzeko prestakuntza-ikastaroak.
 - 1.5.1 izena ematea: 8,60

| | |
|---|--------|
| 1.5.2 Ikastegiko aldia: | 129,38 |
| 2. Askotariko zerbitzuak. | |
| 2.1 Espedienteetan edozein eratako oharrak jartzea, xehetasunak ematea, egiaztagiriak egitea, agiriak erkatzea eta agirien edukia xehatzea: | 3,12 |
| 2.2 Erregelamenduko agindu baten ondorioz egindako ikuskatzeak: | 58,26 |
| 2.3 Edozein eratako xaflak zigilatzea: | 3,12 |
| 2.4 Galdu, hondatu, berritu edo aldatutako baimenen kopia: | 12,57 |
| 2.5 Administrazioak emandako xaflak erabiltzea: | 5,90 |
| 2.6 Trafiko Zuzendaritzak emandako beste lizentzia edo baimen batzuk: | 5,90 |
| 2.7 Kirol-probetarako baimena: | 12,57 |
| 2.8 Garraio berezietarako baimena: | 12,57 |
| 2.9 Garraio berezietarako laguntza. Kilometro bakoitzeko: | 0,26 |
| 2.10 Trafikoa mugaturik dagoen egunetan zirkulatzeko baimena: | 12,57 |
| 3. Ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzua. | |
| 3.1 Bizikletak, ziklomotorrak: | 16,39 |
| 3.2 Motorrak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak: | 24,48 |
| 3.3. Automobilak, beribilak, kamionetak, furgoiak etab., 1.000 kg-ko tara artekoak: | 48,99 |
| 3.4 Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak eta 1.000 kg-tik gorako tara duten bestelako ibilgailuak: | 73,41 |
| 4. Ibilgailuen gordailu-zerbitzua, sartzen den eguneko 12:00etatik hirugarren egunera arte. Eguneko: | |
| 4.1 Bizikletak, ziklomotorrak: | 1,81 |
| 4.2 Motorrak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak: | 2,81 |
| 4.3. Automobilak, beribilak, kamionetak, furgoiak etab., 1.000 kg-ko tara artekoak: | 5,78 |
| 4.4 Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak eta 1.000 kg-tik gorako tara duten bestelako ibilgailuak: | 12,32 |
| 5. Ibilgailuen gordailu-zerbitzua laugarren egunetik aurrera. Eguneko: | |
| 5.1 Bizikletak, ziklomotorrak: | 3,60 |
| 5.2 Motorrak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak: | 5,78 |
| 5.3 Automobilak, beribilak, kamionetak, furgoiak etab., 1.000 kg-ko tara artekoak: | 11,48 |
| 5.4 Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak eta 1.000 kg-tik gorako tara duten bestelako ibilgailuak: | 24,48 |

II. KAPITULUA. JOKORAKO BAIMENARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

100. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek ematea da:

a) Jokorako tresnak homologatzeko proba teknikoak.

- b) Jolaserako eta zori-jokoetako makina-modeloen erregistroan izena ematea.
- c) Joko-enpresen erregistroan izena ematea.
- d) Agiri profesionalak ematea eta berritzea.
- e) Jolaserako eta zori-jokoetako makinaren arloko administrazio-baimena.
- f) Makina horiekin merkataritzan aritzen den enpresa izateko baimena eta baimen horren aldaketak.
- g) Joko-aretoak edo jolas-aretoak ustiatzeko administrazio-baimena.
- h) Bingo-aretoak jarri eta irekitzeko administrazio-baimena eta baimen horren aldaketak
- i) Areto horiek kudeatzeko joko-enpresa izateko administrazio-baimena eta baimen horren aldaketak.
- j) Joko-kasinoak jarri eta irekitzeko administrazio-baimena eta baimen horren aldaketak.
- k) Beste joko-enpresa batzuk edo jokoetarako lokal batzuk jarri eta irekitzeko baimena (jokoak Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Katalogoan egon behar dute sartuta).
- l) Arauzko liburuen zuzemenak egitea eta agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea.
- m) Instalazioetarako baimenak eskatzea.
- n) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-prozedurei buruzko peritu- edo teknikari-txostenak egitea.

101. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

102. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

103. artikulua. Kuota.

1. Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

- 1. Joko-tresnak homologatzeko proba teknikoak.
 - 1.1 joko-erruletentzako zilindroak: 312,65
 - 1.2 Kasinoetarako joko-mahaiak: 312,65
 - 1.3 Kasinoetarako kartak, fitxak eta jokorako bestelako materiala: 312,65
 - 1.4 Bingo-jokorako bolak ateratzeko makina automatikoak: 312,65
 - 1.5 Bingo-jokorako bolak ateratzeko makina erdiautomatikoak edo esku-makinak: 312,65
 - 1.6 Joko-makinak edo joko-makinen programak:
 - 1.6.1 "A" motakoak edo jolas-makinak. Proba-ordu bakoitzeko: 40,65
 - 1.6.2 "B" motakoak edo jolas-makina saridunak. Proba-ordu bakoitzeko: 40,65
 - 1.6.3 "C" motakoak edo zori-jokoetarako makinak. Proba-ordu bakoitzeko: 40,65
 - 1.6.4 Jokoa laguntzeko makinak. Proba-ordu bakoitzeko: 40,65

| | |
|---|----------|
| 1.7 Bingo-jokorako informatika-sistemak: | 312,65 |
| 1.8 Joko-makinen arteko lotura. Makina bakoitzeko: | 93,79 |
| 1.9 Joko-gaien edo -sistemen bestelako homologazioak: | 281,39 |
| 2. Modeloen erregistroan inskribatzea. | |
| 2.1 «A» motako makinak edo jolaserako makinak: | 62,53 |
| 2.2 «B» motako makinak edo jolaserako saridun makinak: | 93,79 |
| 2.3 «C» motako makinak edo zori-jokoetarako makinak: | 125,05 |
| 2.4 Jokoan laguntzeko makinak: | 62,53 |
| 2.5 Bestelako joko-makinak: | 62,53 |
| 3. Joko-enpresen erregistroan inskribatzea. | |
| 3.1 Jolas-makinekin eta zori-jokoetarako makinekin jarduten diren enpresak: | 156,33 |
| 3.2 Joko-kasinoak kudeatzen dituzten enpresak: | 468,98 |
| 3.3 Bingo-jokoa kudeatzen duten enpresak: | 312,65 |
| 3.4 Jokorako materiala egiten duten enpresak: | 156,33 |
| 3.5 Jokorako materialak edo makinak banatzen edo zaintzen dituzten enpresak edo horien mantentze-lanetan aritzen direnak: | 156,33 |
| 3.6 Zozketa-txartelak ustiatzen dituzten enpresak: | 312,65 |
| 3.7 Apustuak ustiatzen dituzten enpresak: | 312,65 |
| 3.8 Jolas eta jokorako aretoetako enpresak: | 156,33 |
| 3.9 Inskripzioa berriztatzea ebazpena sortzen dutenean: Inskripziorako tarifaren % 50. | |
| 3.10 Bestelako joko-enpresak: | 312,65 |
| 4. Agiri profesionalak ematea edo berriztatzea. | |
| 4.1 Joko-kasinoetakoak: | 25,01 |
| 4.2 Bingo-aretoetakoak: | 12,51 |
| 4.3 Beste jarduera batzuetakoak: | 12,51 |
| 5. Baimenak. | |
| 5.1 Joko-kasinoetakoak: | 1.563,23 |
| 5.2 Bingo-aretoetakoak: | 781,63 |
| 5.3 Jolas eta jokorako aretoetarakoak: | 375,18 |
| 5.4 Jokoen katalogoan jasotako beste joko batzuetan aritzeko beste lokal batzuk, berariazkoak: | 375,18 |
| 5.5 Zozketa, tonbola eta ausazko konbinazioetakoak: | 105,99 |
| 5.6 «C» motako makinak edo zori-jokoetarako makinak, lehenbiziko instalazioa: | 49,46 |
| 5.7 Bestelako joko-makinak, lehenbiziko instalazioa: | 14,07 |
| 5.8 Bingo, kasino eta bestelako joko-aretoetan publizitatea egitea: | 62,53 |
| 5.9 Bingo metatu elkarri lotua: | 62,53 |
| 5.10 Joko-enpresetako akzioak eskuz aldatzea: | 62,53 |
| 5.11 Joko-aretoak jartzeko eta jarduteko baimena eskuz aldatzea: | 125,05 |
| 5.12 Joko-aretoen edukiera aldatzea: | 62,53 |

| | |
|--|--------|
| 6. Baimenak berriztatzea edo aldatzea. | |
| 6.1 Joko-kasinoetakoak: | 531,50 |
| 6.2 Bingo-aretoetakoak: | 250,11 |
| 6.3 Jolas- eta joko-aretoetakoak: | 125,05 |
| 6.4 Ebazpena eskatzen duten bestelako baimenak: | 62,53 |
| 7. Joko-makinei dagozkien bestelako izapide batzuk. | |
| 7.1 "A", "B" eta "C" makinak ustiatzeko baimenak eskuz aldatzea. | |
| Makina bakoitzeko: | 10,63 |
| 7.2 Ustiatzeko baimenen aldi baterako bajei alta ematea. | |
| Agiri bakoitzeko: | 10,63 |
| 7.3 Establezimenduak aldatzea edo "A", "B" eta "C" makinak ustiatzeko baimenak eskuz aldatzea. | |
| Makina bakoitzeko: | 10,63 |
| 7.4 Instalatzeko baimena. | 15,64 |
| 7.5 Ustiatzeko baimena ematea: | 31,26 |
| 7.6 Ustiatzeko baimenaren kopia: | 31,26 |
| 7.7 Instalatzeko baimenaren kopia: | 15,64 |
| 8. Arauzko liburuen zuzemenak egitea eta agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea. | |
| 8.1 Liburuen zuzemenak egitea, 100 orri edo zatiki bakoitzeko: | 15,64 |
| 8.2 Agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea, Lehenengo 10 orriak: | 3,13 |
| Gainontzeko orriak, 0,32 euro jatorrizkoarekin erkatutako orri bakoitzeko. | |
| 9. Instalatzeko baimena. | |
| 9.1 Instalatzeko baimenaren inprimakia: | 0,32 |
| 10. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak joko-prozedurei buruz peritu- edo teknikari-txostenak egitea..... | 40,65 |
| 2. Sailak tasaren izapide telematikoaren egitea onartzen badu, % 30 murriztuko da tarifa honetarako ezarritako zenbatekoa. | |

III. KAPITULUA. IKUSKIZUN-TASA

104. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek ematea da:

- Ekintzak lokal itxietan egiteko baimena. Hona ekintzak: kirolak, jolasak, jaiak, dantzaldiak, musika-emanaldiak eta jaialdiak.
- Zezenketa-ikuskizunetarako baimena.
- Establezimendu publikoak itxi eta zabaltzeko ordutegia hedatzeko baimena.
- Sarrera-txartelak birsaltzeko baimena.
- Arauzko liburuen zuzemenak egitea eta agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea.

f) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ikuskizun-prozedurei buruzko peritu- edo teknikari-txostenak egitea.

105. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira.

106. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

2. Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, baimenen kasuan, baimendutako ikuskizun bakoitzagatik sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, zein ere den ebazpen berean baimentzen diren ikuskizunen kopurua.

107. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Ikuskizun- eta jolas-jardueretarako baimena.
 - 1.1 Ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako baimena: 46,90
 - 1.2 Pirotekniazko lehergailuak jaurtikitzea: 125,06
2. Zezenketa-ikuskizunetarako baimena.
 - 2.1 Zezenketa-ikuskizunak, oro har: 250,11
 - 2.2 Usadiozko zezenketa-ikuskizunak: 46,90
3. Ordutegiak eta ikuskatzeak.
 - 3.1 Ordutegia hedatzea.
 - 3.1.1 Kasu eta egun berezietarako: 62,53
 - 3.1.2 Hiru hilabetetik gorako aldietarako: 156,33
4. Sarrera-txartelak birsaltzeko baimena: 62,53
5. Arauzko liburuen zuzemenak egitea eta agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea.
 - 5.1 Liburuen zuzemenak egitea. 100 orri edo zatiki bakoitzeko: 15,632325
 - 5.2 Agiriak jatorrizkoekin erkatuta egiaztatzea. Lehenengo 10 orriak: 3,126465Gainontzeko orriak, 0,312646 euro jatorrizkoarekin erkatutako orri bakoitzeko.
6. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak ikuskizun-prozedurei buruz peritu- edo teknikari-txostenak egitea. 40,65

IV. KAPITULUA. SEGURTASUN PRIBATUAREN ARLOKO JARDUERAK ETA ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

108. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Segurtasun Sailburuordetzak segurtasun-arloan hainbat zerbitzu eta jarduera egitea da. Hona hemen zerbitzu eta jarduerok:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroan segurtasun-enpresak baimendu eta inskribatzea.
- b) Inskripzioan aldaketak egitea.

- c) Segurtasun-enpresen ordezkartzak irekitzeko baimena.
- d) Honako zerbitzu hauek emateko baimen bereziak: armekin egin beharreko zainketa edo babes lanak burutzea, industrialde eta urbanizazio bakartuak zaintzea eta giltzak edo ibilgailuak zaintzea.
- e) Segurtasun-neurriak izan behar dituzten establezimenduen segurtasun-neurriei buruz baimenak eta salbuespenak ematea.
- f) Ziurtagiriak ematea.

109. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak segurtasun pribatuaren arloko zerbitzuak eta administrazio-jarduerak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira, edo, Administrazioak bere kabuz jarduten duenean, zerbitzuok hartzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

110. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duen zerbitzua ematen edo administrazio-jarduketa gauzatzen den unean sortuko da.

Dena den, aldez aurretik eskaria egiten den kasuetan, eskaririk gabe ez baita dena delako zerbitzua edo administrazio-jarduketa gauzatuko edo izapidetuko, eskaria egiten den unean eskatuko da tasa ordaintzea.

2. Tasaren zergapeko egitatea den zerbitzua edo administrazio-jarduketa Administrazioak berak bere kabuz egiten duen kasuetan, tasaren zenbatekoa izango dela uste den kopurua ordaintzea eska daiteke, geroago egingo den likidazioaren kontura.

111. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

- 1. Segurtasun-enpresei baimena ematea eta enpresa horiek inskribatzea: 311,23
- 2. Erregistroko idazpenean honako hauek aldatzea: enpresaren egoitza, jardueraren lurralde-esparrua, jarduerak gehitu eta hedatzea, bai eta Administrazioko langileek horretarako egin beharreko joan-etorriak eta txostenak ere: 218,66
- 3. Erregistroko idazpenean honako hauek aldatzea: sozietatearen kapitala, akzio edo partizipazioen jabetza, estatutuen aldaketak eta administrazio- edo zuzendaritza-organoetako kideen aldaketak: 94,17
- 4. Segurtasun-enpresen ordezkartzak irekitzeko baimena: 118,12
- 5. Honako zerbitzu hauek emateko baimen bereziak: armekin egin beharreko zainketa edo babes lanak burutzea, industrialde eta urbanizazio bakartuak zaintzea eta giltzak eta ibilgailuak zaintzea: 175,58
- 6. Segurtasun-neurriak izan behar dituzten establezimenduen segurtasun-neurriei buruzko baimenak eta salbuespenak ematea, bai eta, oro har, Administrazioko langileak joan-etorrian aritu beharra eta langile horiek txostena egin beharra dakarten bestelako baimenak: 175,58

7. Ziurtagiriak ematea: 19,17

VI. TITULUA. INDUSTRIA ETA NEKAZARITZA ALORREKO TASAK

I. KAPITULUA. INDUSTRIA, INDUSTRIA SEGURTASUN, ENERGIA ETA MEATEGIEN ARLOKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

112. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea industria, industria-segurtasun, energia eta meategien arloko hainbat zerbitzu ematea da, hala Administrazioak bere kabuz ematen dituen zerbitzuak nola interesatuak eskatuta ematen direnak. Hona hemen zerbitzu horiek:

- a) Lanbide-egiaztagiriak eta enpresa baimenduaren ziurtagiriak.
- b) Jabetza kentzeko prozedurak.
- c) Abian jartzeko administrazioaren baimena behar duten jarduerak.
- d) Beste tarifetan jasota ez dauden ziurtagiriak ematea.

113. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira.

114. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Oro har, zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean bertan sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten edo espedientea hasten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.
2. Jabetza kentzeko prozeduretan, tasa aldeztu aurretik ordaintzeko eskaera okupatzeko beharizanaren adierazpenarekin batera egingo da.

115. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Oinarritzko tarifa.
Oinarritzko tarifa bat ezartzen da zerbitzuaren tasa makineria, tresneria, instalazio eta abarren aurrekontuaren arabera ezartzen den kasuetarako. Tarifa honek zuzenketa-koefiziente batzuk sartzen ditu, ehuneko bidezkoa, zerbitzuak kostuaren arabera bereizteko.
600.000 euroraino: 102,00
Gainontzekoa 100.000 euro edo zatiki bakoitzeko: 61,20
Gehienezko kopurua: 627,30
2. Lanbide-egiaztagiriak eta enpresa baimenduaren ziurtagiriak.
2.1 Azterketa-eskubideak: 12,50
2.2 Txartela, enpresa-egiaztagiriak edo Enpresa Kalifikazioko Agiria (EKA) eman eta berritzea: 15,30
3. Jabetza kentzeko prozedura.
Jabetza nahitaez kentzea eskatzen duten administrazio-izapideak egiteagatik: 612,00
4. Abian jartzeko administrazioaren baimena behar duten jarduerak.

Oinarrizko tarifa aplikatzea.

5. Beste tarifetan jasota ez dauden ziurtagiriak ematea.

5.1 Ikuskapenik gabe: 12,24

5.2 Ikuskapenarekin: 81,60

II. KAPITULUA. INDUSTRIAREN ETA INDUSTRIA-SEGURTASUNAREN ARLOKO ZERBITZUAK EMATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

116. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek ematea da:

a) Metrologi kontrola.

b) Ibilgailuen azterketa teknikoak eta dagozkien agiriak ematea.

c) X izpien instalazioak erregistroan inskribatzea.

117. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira.

118. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea diren zerbitzuak ematen diren unean bertan sortuko da. Halere, eskabidea egiten edo espedientea hasten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

119. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Metrologia.

1.1 Modeloa onartzea:

Onartzeko aurkeztutako modelo bakoitza: 102,00

Onartutako modelo batean funtsezkoak ez diren aldaketak egitea: 51,00

Lehenago emandako onarpenen epea luzatzea: 51,00

1.2 Neurtzeko tresnen hasierako egiaztapenak.

Unitate bakoitza egiaztatzeagatik honako taula honetako dagokion tasa eskatuko da:

Jendearentzako salmenta-prezioa. Tarifa (eurotan)

6,01 arte Jendearentzako salmenta-prezioaren % 5

6,02tik 300,51ra 0,31 + 6,01etik gorakoaren % 2

300,52tik 601,01era 6,31 + 300,51etik gorakoaren % 1

601,02tik 1.502,53ra 9,38 + 601,01etik gorakoaren % 0,8

1.502,54tik 3.005,06ra 16,74 + 1.502,53etik gorakoaren % 0,6

3.005,07tik 6.010,12ra 26,96 + 3.005,06etik gorakoaren % 0,4

6.010,13tik 30.050,61era 38,20 + 6.010,12tik gorakoaren % 0,2

30.050,62tik aurrera 87,24 + 30.050,61etik gorakoaren % 0,1

Hasierako egiaztapena laginketa bidez egiten bada, tasaren zenbatekoa

laginaren unitate-kopuruaren araberakoa izango da, 1.2 tarifa honen

taula unitate bakoitzaren prezioari ezarriz kalkulatuta.

1.3 Metrologia egiaztapena:

Metrologia egiaztapenaren egiaztagiri bakoitzeko: aurreko 115. artikulua 5. tarifa aplikatuko da.

2. Ibilgailuak.

2.1 Ibilgailuen aldizkako azterketak.

2.1.1 Motorrak eta motozikletak: 18,36

2.1.2 Ibilgailu arinak: 33,66

2.1.3 Ibilgailu astunak: 44,88

2.1.4 Atoiak eta nekazaritzako ibilgailuak: 28,56

2.2 Taximetroen ikuskapenak: 20,40

2.3 Ikuskapen-lerrotik pasa beharrik gabeko gainontzeko ikuskapenak:
..... 20,40

2.4 Ikuskapen-lerrotik pasa beharrik gabeko gainontzeko ikuskapenak:
20,40 euro gehi 2.1 puntuan adierazitakoa.

2.5 Etkez etxeko ikuskapenak: Dagokion tasa gehi 0,51 euro kilometroko.

3. X izpien instalazioak.

3.1 Osasun-diagnostikoak egiteko X izpien instalazioak erregistroan
inskribatzen diren bakoitzean 20,40

III. KAPITULUA. MEATZEEN ARLOKO ZERBITZUAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

120. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hauek dira tasa honen zergapeko egitatea: meatzaritza-baliabideak arakatzeko eta ikertzeko baimenak, meatzaritza-baliabideak ustiatzeko kontzesioak eta meategien antolamenduarekin zerikusia duten gainerako zerbitzuak; halaber, jabetza publikoko ondasunak nork beretzat erabiltzea meatzaritzako araubidearen arabera.

121. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak dira, bai eta aurreko artikuluan aipatzen diren baimenen eta kontzesioen titularrak ere.

122. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Oro har, zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean bertan sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten edo espedientea hasten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

2. Baimen eta kontzesioen bitartez jabetza publikoa nork beretzat erabiltzearen tasa (eremu bat baliatzeagatik ordaindu beharreko saria) ordaintzeko betebeharra, oro har, une honetan sortzen da: baimena edo kontzesioa emateko erabakiak aipatzen duen eskubidea sortzen den egunean, hau da, kontzesiodunak kontzesioa emateko titulua hartu izanaren agiria sinatzen duenean.

3. Ikertzeko baimenetan edo ustiatzeko kontzesioetan, horiek esleitu osteko urteetarako, jabetza publikoa nork beretzat erabiltzearen tasa (eremu bat baliatzeagatik ordaindu beharreko saria) ordaintzeko betebeharra urteko lehenbiziko egunean sortuko da, egun horretan indarrean diren baimen eta kontzesio guztiena, alegia.

4. Baldin eta ikertzeko baimenak edo ustiatzeko baimenak urtarrilaren 1a baino geroago ematen badira, esleitu diren urtean ordaindu beharreko tasa ez da osoa izango, dagokion heinekoa baizik, hau da, esleitu diren egunetik urte naturala amaitu arteko aldiari dagozkion kuoten zati proportzionala.

Aurreko paragrafoko irizpide bera erabiliko da ikertzeko baimenei uko egiten zaienean edo iraungitzen direnean; kasu horietan, ukoa onartzen den edo baimena iraungia dela adierazten den egunaz gerostik ez da engoitik tasa ordaintzeko betebeharririk sortuko.

5. Ondorengo 123. artikulua 2. zenbakian meatze-baliabideak arakatzeko baimenetarako zehazten diren tarifak baimenaren iraupen aldi osoari dagozkio, hots, urte osoari, eta berriro ordaindu beharko dira baimenaren iraupen-epea beste urte betez luzatzen bada.

123. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Meategien antolamendua.

1.1 Meatze-baliabideak arakatzeko baimena.

1.1.1 Lehenengo 300 laukiengatik: 2.000,93

1.1.2 Hortik gora, bakoitzagatik: 1,89

1.2 Ikertzeko baimena.

1.2.1 Lehenengo laukiarengatik: 2.032,20

1.2.2 Hortik gora, bakoitzagatik: 9,38

1.3 Meategiak ustiatzeko kontzesioak.

1.3.1 Ikertzeko baimenetatik eratorriak.

1.3.1.1 Lehenengo 50 laukiengatik: 2.000,93

1.3.1.2 Hortik gora, unitate bakoitzagatik: 37,54

1.3.2 Zuzenean emandako ustiatzeko kontzesioak.

1.3.2.1 Lehenengo 50 laukiengatik: 2.907,61

1.3.2.2 Hortik gora, unitate bakoitzagatik: 37,54

1.4 Mugaketak, zedarritzeak eta planoak.

1.4.1 Lehenengo 100 laukiengatik: 1.813,36

1.4.2 Hortik gora, bakoitzagatik: 1,89

2. Meatzaritzako baimen eta kontzesioen bitartez jabari publikoko ondasunak norik beretzat erabiltzea (eremu bat erabiltzeagatik ordaindu beharreko saria).

2.1 Meatze-baliabideak arakatzeko baimena.

2.1.1 Lauki bakoitzeko, 1.000 arte: 0,26

2.1.2 Lauki bakoitzeko, 1.001 eta 2.000 bitarte: 0,31

2.1.3 Lauki bakoitzeko, 2.000tik aurrera: 0,41

2.2 Ikertzeko baimena.

2.2.1 Lauki bakoitzeko: 15,30

2.3 Ustiatzeko kontzesioak.

2.3.1 22/1973 Legea baino lehenagoko legediaren arabera emandakoak.

2.3.1.1 Hamar hektarea bakoitzeko edo zatiki eta urte

bakoitzeko, 280 hektarea arte: 220,32

2.3.1.2 Hamar hektarea bakoitzeko edo zatiki eta urte

bakoitzeko, 280 hektareatik aurrera: 55,08

2.3.2 22/1973 Legeari jarraituz emandakoak.

2.3.2.1 Lauki eta urte bakoitzeko, 10 lauki arte: 612,00

2.3.2.2 Lauki eta urte bakoitzeko, 10 laukitik aurrera: 153,00

3. Meategiekin lotutako beste zerbitzu batzuk.

3.1 Meataritzako ustiategietan urtebetez kontsumitu beharreko lehergaietarako baimena ematea edo obra zibileko leherketetarako eredu-zko proiektua onartzea

3.1.1 Mila kg. lehergai arte: 24,99

3.1.2 Hortik gora, 1.000 kg. lehergai bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko: 2,50

3.2 Meategietako lan-egitasmoak onartzea: Aurreko 115. artikulua oinarritzeko tarifaren % 50, urteko ustiapen-aurrekontuari aplikatuta, 306,52 euroko mugarekin.

124. artikulua. Eratorritako kontzesioak.

Ustiatzeko kontzesioa ikerketa-baimen batetik badator, likidazio osagarria egin beharko da, hain zuzen ere, kontzesioa esleitzeko erabakia irmoa bihurtzen denetik urte naturala amaitu artekoa, eta, horrela lortzen den emaitzari, eratorritako kontzesioaren sorburu den ikerketa-baimenaren tasa kenduko zaio, aldi horri berorri dagokion tasa, alegia.

125. artikulua. Tasa ez ordaintzeagatik baimenak eta kontzesioak iraungitzea.

Lege honetako 22. artikuluan xedatutakoa gorabehera, jabari publikoko ondasunak nor bere onurarako erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa nor bere borondatez ordaintzeko epean ordaintzen ez bada, eta bi hilabete igaro badira tasak eragindako zorraren ordainketa gauzatu edo bermatu gabe, iraungitza joko dira ustiatzeko kontzesioak, arakatzeko baimenak eta meategiak ikertzeko baimenak, eta meataritzari buruzko indarreko legediaren arabera izan daitezkeen bestelako arrazoiak alde batera utzita iraungiko dira, gainera. Aipatutako iraungitze horretaz gain, bestelako zigorrak ere ezarri ahal izango dira, baldin eta arau-hauste eta zigorren erregimen orokorraren arabera hala badagokio.

IV. KAPITULUA. NEKAZARITZA-, BASOGINTZA- ETA ABERE-INDUSTRIAK ANTOLATU ETA DEFENDATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

126. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea nekazaritza, basogintza, abere eta elikagaien industriak antolatu eta babesteko hainbat zerbitzu, lan eta azterketa egitea da, Administrazioak bere kabuz edo interesatu batek eskatuta. Hona hemen jarduerok:

a) Espedienteak eta baimenak izapidatzea: industria berriak jartzeko, lehendik dauden industriak handiagotu edo lekuz aldatzeko eta makineria aldatzeko.

b) Industriaren titulartasuna edo sozietate-izena aldatzea.

c) Lanean hasteko baimena ematea.

d) Klandestinitate-kasuetan dauden industriak ikuskatu eta egiaztatzea eta indarreko legedia betetzen duten kontrolatzea eta, hala badagokio, legeztatzea.

127. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

128. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzaten diren unean bertan sortuko da. Halere, eskabidea egiten edo espedientea hasten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

129. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Industria berriak jartzeko edo lehendik daudenak handiagotzeko baimena ematea.
Instalazio edo handiagotzearen balioa:
3.005,06 arte 21,47
3.005,07tik 6.010,12ra 34,33
6.010,13tik 12.020,24ra 38,58
Hortik gorako 6.010,12 euro bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko: 4,314522
2. Industriak tokiz aldatzeko baimena ematea.
Instalazio edo handiagotzearen balioa:
3.005,06 arte 15,00
3.005,07tik 6.010,12ra 17,17
6.010,13tik 12.020,14ra 19,26
Hortik gorako 6.010,12 euro bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko: 2,157261
3. Makinak ordezkatzeko baimena ematea.
Industria jartzearen balioa, makinak ordezkatu aurretik:
3.005,06 arte: 21,47
3.005,07tik 6.010,12ra: 34,33
6.010,13tik 12.020,14ra: 38,58
Hortik gorako 6.010,12 euro bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko: 4,314522
4. Industriaren jabea aldatzea.
Jabetza-aldaketa bakoitzeko: 12,76
5. Industriak legeztatzea.
Instalazio edo handiagotzearen balioa
3.005,06 arte: 42,89
3.005,07tik 6.010,12ra: 68,50
6.010,13tik 12.020,24ra: 77,15
Hortik gorako 6.010,12 euro bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko: 8,535249

V. KAPITULUA. MAHASTIZAINZA- ETA ARDOGINTZA-ARLOKO ERREGISTRO LIBURUAK EMATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

130. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea mahastizaintzako eta ardogintzako arloan erabili beharreko erregistro-liburuak ematea da, betiere honako eredu hauen araberako liburuak badira:

a) 1. eredia: honako gai hauen sarrerak eta irteerak erregistratzeko lliburuak: mahaiko ardoa, eskualde zehatzetan egindako kalitatezko ardoa, ardoak lantzeko produktuak eta amaierako produktuak.

b) 2. eredia: honako gai hauen sarrerak eta irteerak erregistratzeko liburuak: lanketa izaten duten mahastizaintzako eta ardogintzako produktuak (ardo aparduna, ardo apardun gasduna, eskualde zehatzetan egindako kalitatezko likore-ardoa, eskualde zehatzetan egindako kalitatezko ardo aparduna, eskualde zehatzetan egindako ardo pindartsuak, ardo urrinduak, sangria, mahats-zukuak eta bestelakoak).

c) 3. eredia: honako gai hauek erregistratzeko liburuak: jardun-molde enologikoak, produktuak lantzeko prozesuak eta erregistratu beharreko prozesu eta jardun-moldeetarako produktuen mugimendua.

131. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren mahastizaintzako eta ardogintzako produktuak landu, biltegiatu eta ontziratze jardueretan aritzen diren nekazaritza-industrien titularrak dira, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan, betiere zergapeko egitatean aipatzen diren erregistro-liburuak eduki eta betetzeko betebeharra baldin badute.

132. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatean aipatzen diren erregistro-liburuak dagozkien zuzemenak egirik ematen direnean sortuko da.

133. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

- | | |
|---|-------|
| 1. Lehenengo eredia, ale bakoitzarengatik: | 18,76 |
| 2. Bigarren eredia, ale bakoitzarengatik: | 40,65 |
| 3. Hirugarren eredia, ale bakoitzarengatik: | 15,64 |

134. artikulua. Tasa likidatzea.

Subjektu pasiboek tasaren zorra zehaztu eta ordaindu beharko dute autolikidazioaren bitartez; era horretan zehaztutako zorra erregelamenduz zehaztutako tokian, moduan eta epeen barruan ordaindu beharko dute.

VI. KAPITULUA. JOLASEKO ITSAS ARRANTZARAKO BAIMENA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

135. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea jolaseko itsas arrantzarako edo itsasertzean eta itsasadarretan itsas belarrak biltzeko behar diren baimenei (martxoaren 13ko itsas arrantzari buruzko 6/1998 Legearen arabera beharrezko diren baimenei) dagozkien administrazio-zerbitzuak ematea da.

136. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak jolaseko itsas arrantzarako baimena eskatzen duten pertsona fisikoak dira.

137. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Hala ere, tasaren ordainketa dagokion baimena ematen den unean egiteko eska daiteke.

138. artikulua. Kuota.

Tasaren zenbatekoa 3,13 euro izango da.

VII. KAPITULUA. ANGULAREN ARRANTZARAKO LIZENTZIA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

139. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan angulak lehorretik nahiz ontzitik arrantzatzeko lizentziak egin, berritu eta emateari dagozkion administrazio-zerbitzuak dira, araudiaren arabera beharrezkoak diren lizentziei dagozkienak, alegia.

140. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak angularen arrantzarako lizentzia egin, berritu eta ematea eskatzen duten pertsona fisikoak dira.

141. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Halere, baimena emateko eskabidea egiten den unean eska daiteke tasa ordaintzea.

142. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberkoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Angularen arrantza lehorretik egiteko: 15,30
2. Angularen arrantza ontzitik egiteko: 61,20

VII. TITULUA. OSASUN ALORREKO TASAK

I. KAPITULUA. HILETETAKO OSASUN NEURRIEI DAGOKIEN TASA

143. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Osasun Sailak heriotzak direla-eta ezartzen dituen osasun-neurriak dira.

144. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak eta haiengandik eskubidea hartzen dutenak dira.

145. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak ematen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, zerbitzua interesatuaren eskariz ematen denean, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

146. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberkoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

Heriotza dela-eta ezartzen diren osasun-neurrien zerbitzua. Baimenak

1. Hilotzak eta gorpuzkinak lurpetik atera eta berriro lurperatu edo erraustea:
 - 1.1. Hilotzak eta gorpuzkiak lurpetik atera eta berriro lurperatu edo erraustea: 85,73
 - 1.2. gorpuzkinak lurpetik atera eta berriro lurperatu edo erraustea: 8,54
2. Beilatzea eta hilotza herri-eraikin batean erakusgai edukitzea 108,12
3. I. eta II multzoetako hilotz lurperatu gabeak lekuz aldatzea:: 81,60
4. Hileta-establezimenduak eta gorputegiak:
 - 4.1. Beilatokiak ireki eta jardunean jartzea: 316,20
 - 4.2. Errausketa-labeak ireki eta jardunean jartzea: 316,20
 - 4.3. Hilerriak ireki eta jardunean jartzea: 499,80
 - 4.4. Hilerriak ixtea: 81,60

II. KAPITULUA. ANIMALIAK ETA PRODUKTU ERATORRIAK IKUSKATU ETA KONTROLATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

147. artikulua. Helburua.

1. Tasa honen helburua gizakiek kontsumitzeko diren animaliak eta produktu eratorriak osasunerako kalterik ez dutela ikuskatu eta kontrolatzeko lanak kargatzea da.

Horretarako, honakoak bereiztu behar dira:

a) Haragi freskoaren, untxikiaren eta ehizakiaren egoera sanitarioa ikuskatu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasa.

b) Gizakiek kontsumitzeko diren animalia bizietan eta haietatik eratorritako produktuetan zenbait gai eta hondakin atzemateko egiten diren osasun-kontrolengatik ordaindu beharreko tasa.

2. Teknikari fakultatiboek egingo dituzte kontrol eta ikuskatze-lanak. Lanok honako uneetan egingo dituzte:

a) Animaliak hiltzen direnean.

b) Gorpuzkiak zatikatzen direnean.

c) Gizakiek kontsumitzeko diren haragi freskoak bildu eta pilatzeko lanak egiten direnean.

d) Animalietan eta haietatik eratorritako produktuetan zenbait gai eta hondakin ote dauden jakiteko kontrolak egiten direnean

148. artikulua. Zergapeko egitatea.

1. Tasa honen zergapeko egitatea osasun publikoa babesteko lanak dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko teknikari adituek hiltegiatan, zatikatzeko geletan edo hozkailuetan egiten dituztenak, giza kontsumorako diren animalien eta haragi freskoen egoera sanitarioa ikuskatuz eta kontrolatuz.

2. Tasa ordainarazte aldera, honela sailkatzen dira aurreko idatz-zatian definitutako zergapeko egitatearen barruko ikuskatze eta osasun-kontrolako jarduerak:

- a) "ante mortem" ikuskatzeak eta osasun-kontrolak: behi, txerri, ardi eta ahuntzen eta bestelako hausnarkarien haragi freskoak, untxi eta lumadun nahiz iledun ehizenak, azkazal batekoenak/zaldienak eta etxeke hegaztienak lortzeko.
- b) "Post mortem" ikuskatzeak eta osasun-kontrolak: haragi fresko horiek lortzeko hil dituzten animaliak aztertzen dituzte.
- c) Hiltegian egindako lanen agiri bidezko kontrola.
- d) Giza kontsumorako diren gorpuzkiak, barrukiak eta hondakinak kontrolatu eta zigilua jartzea; baita zatikatzeko geletan lortutako piezak markatzea ere.
- e) Giza kontsumorako diren haragi freskoak pilatu eta biltzeko lanak kontrolatzea, horretarako ezartzen den unetik aurrera; ez dira hemen sartzen kontsumitzaileentzako saltokietan kantitate txikiekin egiten diren era horretako lanak.
- f) Animalietan eta haietatik eratorritako produktueta zenbait gai eta hondakin ba ote den kontrolatzea, indarrean dauden arauak jarraiki.

149. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasa hauen subjektu pasiboak aurreko artikuluan azaldutako lanak egiten diren lokaletako titularrak dira, pertsona fisiko nahiz juridikoak.
2. Subjektu pasiboek tasaren zenbatekoa igaroaraziko dute, faktura bidez, zerbitzua eskatu duten pertsonen gainera edo tasaren gai diren lanak eskatu dituztenen gainera. Horiek, ondoren, Administrazio Orokorraren kontuan sartu beharko dute diru hori, betiere, erregelamenduz ezarriko den eran.

Baldin eta interesatuak, hiltzeko, besteren bati ganadu bizia erosten badio, aurreko artikuluko 2. idatz-zatiko f) letrako kontzeptuari dagokion tasaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio saltzaileari

150. artikulua. Tasa kobratzeko arduradunak.

Hona hemen zein diren tasa kobratzeko arduradun subsidiarioak: sozietateetako administratzaileak; porrotetako, lehiaketetako eta sozietateetako sindikoak, kontu-hartzaileak edo likidatzaileak, bai eta, oro har, tasa ordaintzeko betebeharra sortzen duten jardueren ikuskatze- eta kontrol-lanetan jarduten diren erakundeetakoak.

151. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

1. Tasa ordaintzeko betebeharra sortuko da animalien eta haietatik eratorritako produktuen ikuskatze eta osasun-kontrolerako jarduerak egiten diren unean bertan; hala ere, albaitaritza-zerbitzuak eskatzen dituen subjektu pasiboa edo interesatua bada, aldez aurretik ordaintzeko eskatuko da.
2. Leku berean, interesatuak eskatuta, egiten badira animaliak hil, zatikatu eta biltegitratzeko lanak, edo jarduera horietako bi egiten badira elkarren jarraian, prozesuaren hasieran zehaztuko da tasaren zenbatekoa, era metatuan, edozein dela ere dagozkion kuotak sortzeko unea; hala ere, kapitulu honetan likidazioak metatzeari buruz ezarritako arauak bete beharko dira.

152. artikulua.– Zergapeko egitatea non gauzatzen den.

1. Zergapeko egitatea Euskadiko lurraldean egin dela ulertuko da, baldin eta lurralde horretan kokatzen bada animalien hiltegia edo instalazioa, lokal horietan zatikatzen badira gorpuzkiak,

bertan biltegitzen badira haragiak edo bertan kontrolatzen badira animalietan eta beren eratorrietan daudekeen zenbait gai eta hondakin.

2. Etxeko hegazti bizien osasun-egoera jatorrizko ustiatégian ikuskatzen denean, ustiatégian bertan kobratuko da ikuskatze horri dagokion kuota, eta ondorengo artikuluan zehazten den kuotaren % 20 izango da.

153. artikulua. Haragi freskoak eta untxi zein ehizako haragi freskoak ikuskatzeagatik eta haien osasun-kontrolak egiteagatik ordaindu beharreko tasaren kuota.

1. Honako eragiketa hauengatik eskatuko zaio kuota zergapekoari:

- a) Animaliak hiltzen direnean.
- b) Gorpuzkiak zatikatzea.
- c) Biltegitzea kontrolatzea.

Hala eta guztiz ere, abereak hil, zatikatu eta bildu leku berean egiten direnean, jaso beharreko tasaren zenbateko osoan hiru urratsen kuotak bilduko dira, hurrengo artikuluan zehazten den moduan.

2. Hiltegitan egindako hilketetan subjektu pasiboari eskatu beharreko kuotak hildako abere-kopuruaren arabera likidatuko dira.

3. Hil aurreko eta hil osteko ikuskapen eta osasun-kontrolari, egindako eragiketen agiri bidezko kontrolari eta gorpuzkiak, erraiak eta hondarrak zigilatzeari dagozkion zerga-kuotak, hiru eragiketa horiei batera dagozkienak, behar bezalako baimena duten tegietan edo instalazioetan hiltzen den animalia bakoitzeko ezartzen dira, ondorengo taula honetan zehaztutako zenbatekoen arabera (eurotan):

| Abere mota | Aberea hiltzeari dagokion kuota |
|--|---------------------------------|
| C1.1 Behikia. | |
| C1.1.1 218 kiloko edo gehiagoko behia (gorpuzkiaren pisua): | 1,986225 |
| C1.1.2 218 kilotik beherako txahalak (gorpuzkiaren pisua): | 1,103458 |
| C1.2 Azazkal bakarrekoak/zaldia. | |
| C1.2.1 zaldia: | 1,943313 |
| C1.3 Txerriak eta basurdeak. | |
| C1.3.1 Saltzeko txerriak eta basurdeak, gorpuzki eran 25 kilo edo gehiago dituztenak: | 0,570120 |
| C1.3.2 Esneko txerriak eta basurdeak, gorpuzki eran 25 kilo baino pisu gutxiago dutenak | 0,220692 |
| C1.4 Ardiak, ahuntzak eta beste hausnarkari batzuk. | |
| C1.4.1 18 kilotik gorakoak (gorpuzkia): | 0,220692 |
| C1.4.2 12 eta 18 kilo artekoak (gorpuzkia): | 0,153258 |
| C1.4.3 12 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 0,073564 |
| C1.5 Etxeko hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea. | |
| C1.5.1 Hegazti heldu astunak, untxiak eta lumadun eta iledun ehiza xehea, gorpuzkia 5 kilotik gora duena: | 0,017778 |

| | |
|---|----------|
| C1.5.2 Eskortako hegazti gazteak, gizentzekoak, eta untxiak eta lumadun eta iledun ehiza xehea, gizentzekoak, 2,5 eta 5 kilo bitartekoak (gorpuzkia): | 0,008582 |
| C1.5.3 Haragitako oilasko eta oiloak eta eskortako hegazti gazteak, gizentzekoak, eta untxiak eta lumadun eta iledun ehiza xehea, 2,5 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 0,004291 |
| C1.5.4 Aurrerako oiloak: | 0,004291 |
| C1.6 Haztegian hazitako ehiza. | |
| C1.6.1 Ugaztunak, 218 kilokoak edo gehiagokoak (gorpuzkia): | 1,943313 |
| C1.6.2 Ugaztunak, 218 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 1,103458 |
| C1.6.3 Hegaztiak, 5 kilotik gorakoak (gorpuzkia): | 0,017778 |
| C1.6.4 Hegaztiak, 2,5 eta 5 kilo bitartekoak (gorpuzkia): | 0,008582 |
| C1.6.5 Hegaztiak, 2,5 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 0,002759 |

4. Zatikatze- eta biltegiratze-lanetarako, tona-kopuruaren arabera ezarriko da kuota. Hala, zatikatze-lanetarako, haragiak zatikatu aurretik duen benetako pisua hartuko da erreferentziatzat, hezurak ere barne direla.

5. Zatikatze-geletako ikuskapenei eta osasun-kontrolei dagokien kuota, gorpuzkietatik lorturiko atalei etiketa jartzea eta markatzea barne, 1,36 euro izango da tona metrikoko.

6. Biltegiratze-lanak ikuskatu eta kontrolatzeari dagokion kuota (93/118/EE Zuzentarauaren eranskinean aurreikusitako garapena gauzatu izanagatik ezartzen diren unetik) 1,36 euro izango da tona metrikoko.

154. artikulua. Likidazioak metatzeari buruzko arauak.

Ordaintzeko betebeharra sortzearen urrats guztiak edo batzuk tegi berean batzen direnean, kasuan-kasuan sorturiko kuotak metatu egin beharko dira. Honela egingo da metatze hori:

a) Hiltze-, zatikatze- eta biltze-lanak tegi berean egiten direnean, edo zatikatzea eta biltegiratzea, hiltzea eta zatikatzea, edo hiltzea eta biltegiratzea tegi berean egiten direnean, ikuskatzeari eta osasun-kontrolari dagokion kuota ordaintzeko betebeharra abereak hiltzeagatik baizik ez da sortuko.

b) Tegiri berean zatikatu eta bildu baino ez bada egiten, ikuskatzeari eta osasun-kontrolari dagokion kuota ordaintzeko betebeharra zatikatzeagatik baizik ez da sortuko.

155. artikulua. Abere biziengan eta horietatik eratorritako produktuetan zenbait gai eta gai horien hondakinak ba ote diren ikertzeko osasun-kontrolak egiteagatik ordaindu beharreko tasaren zerga-kuota.

1. Hiltzeko abereetan eta haien haragietan zenbait gai eta zenbait hondakin ba ote diren ikertzeko egin beharreko osasun-kontrolengatik ordaindu beharreko tasaren kuotak honako taula honen arabera zehaztuko dira (eurotan):

Abere mota. Hondakinak ikertzeagatik ordaindu beharreko kuota, unitateko

| | |
|---|----------|
| C2.1 Behikia. | |
| C2.1.1 218 kiloko edo gehiagoko behia (gorpuzkiaren pisua): | 0,337168 |
| C2.1.2 218 kilotik beherako txahalak (gorpuzkiaren pisua): | 0,232952 |
| C2.2. Azazkal bakarrekoak/zaldia. | |
| C2.2.1 Zaldia: | 0,196170 |

| | |
|--|----------|
| C2.3 Txerriak eta basurdeak. | |
| C2.3.1 Saltzeko txerria, 25 kilokoa edo gehiagokoa, eta basurdeak (gorpuzkia): | 0,098085 |
| C2.3.2 Esneko txerriak eta basurdea, 25 kilo baino pisu txikiagokoak, gorpuzki-eran (2 bakoitzeko edo zatiki bakoitzeko) | 0,025747 |
| C2.4 Ardiak, ahuntzak eta beste hausnarkari batzuk. | |
| C2.4.1 18 kilotik gorakoak (gorpuzkia): | 0,024521 |
| C2.4.2 12 eta 18 kilo artekoak (gorpuzkia): | 0,019617 |
| C2.4.3 12 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 0,008582 |
| C2.5 Etxeko hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea. | |
| C2.5.1 Etxeko hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea. | 0,002146 |
| C2.6 Haztegian hazitako ehiza. | |
| C2.6.1 Ugaztunak, 218 kilokoak edo gehiagokoak (gorpuzkia): | 0,337168 |
| C2.6.2 Ugaztunak, 218 kilotik beherakoak (gorpuzkia): | 0,232952 |
| C2.6.3 Hegaztiak: | 0,002146 |

2. Akuikulturako produktuetan zenbait substantzia eta hondakin kontrolatzeagatik, 0,098085 euroko kuota eskatuko da tonako.

Esnean eta esnekietan utzitako substantziak eta hondarrak ikertzeagatik, lehengai gisa erabilitako mila litro esne gordin bakoitzeko 0,019617 euroko kuota sortuko da.

Arrautzakietan eta ez-tian utzitako substantzia eta hondarrak ikertzeagatik, 0,019617 euroko kuota eskatuko da tonako.

156. artikulua. Tasa likidatu eta diru-sarrera eginez ordaintzea.

1. Tasak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasiboek interesatuen gainera igaroaraziko dituzte, haiei eman beharreko fakturan tasaren zenbateko osoa kargatuz, eta aurreko artikuluetan esandakoaren arabera egingo dituzte likidazioak.

2. Likidazio horiek liburu ofizial baten jaso beharko dira, horretarako gaituriko eta Osasun Sailak baimendutako liburu ofizial batean, alegia. Betebehar hori bete ezik, tributuen arloko zigorra ezarriko da; eta hori ez da eragozpen izango ustiatuegien titularrek osasunaren arloan izandako jokabideak tipifikatu eta zigortzeko, baldin eta hala badagokie.

3. Tasen kuotei dagokien diru-sarrera egiteko, autolikidazioa egin beharko du subjektu pasiboak, arauz ezarritako moduan eta epeetan.

4. Abere-hiltegiaren titularrek honako kopuru hauek kendu ahal izango dituzte kuotatik hildako abere bakoitzeko, langile laguntzaileen kontzeptuagatik (eurotan):

| | |
|--|----------|
| D1 Behia. | |
| D1.1 Behia, 218 kilokoa edo gehiagokoa (gorpuzkia): | 0,766290 |
| D1.2 Txahala, 218 kilotik beherakoa (gorpuzkia): | 0,527208 |
| D2 Azazkal bakarrekokoak/zaldia. | |
| D2.1 Zaldia. | 0,429123 |
| D3 Txerriak eta basurdeak. | |
| D3.1 Saltzeko txerriak eta basurdeak, 25 kilokoak edo gehiagokoak (gorpuzkia): | 0,220692 |

D3.2 Esneko txerriak eta basurdeak, 25 kilotik beherakoak (gorpuzkia):
.....0,061303

D4 Ardiak, ahuntzak eta bestelako hausnarkariak.

D4.1 18 kilotik gorakoak (gorpuzkia):0,055173

D4.2 12 eta 18 kilo artekoak (gorpuzkia):0,044751

D4.3 12 kilotik beherakoak (gorpuzkia):0,019617

D5 Eskortako hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea.

D5.1 Etxeko hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea:0,001533

D6 Haztegia hazitako ehiza.

D6.1 Ugaztunak, 218 kilo edo gehiagokoak(gorpuzkia):0,766290

D6.2 Ugaztunak, 218 kilotik beherakoak (gorpuzkia):0,527208

D6.3 Hegaztiak:0,001533

5. Autokontrolerako sistemak dituzten abere-hiltegiak kenkariak kendu ahal izango dituzte kuotatik, autokontrolerako sistemaren funtzionamendu-kostuarengatik.

Hala, kenkaria kalkulatzeko, hildako abere bakoitzerako honako kopuru hauek aplikatu ahal izango dira (eurotan):

D1 Behia.

D1.1 Behia, 218 kilokoa edo gehiagokoa (gorpuzkia):1,149435

D1.2 Txahala, 218 kilotik beherakoa (gorpuzkia):0,797139

D2 Azazkal bakarrekoak/zaldia.

D2.1 Zaldia:0,695179

D3 Txerriak eta basurdeak.

D3.1 Saltzeko txerriak eta basurdeak, 25 kilokoak edo gehiagokoak (gorpuzkia):0,331038

D3.2 Esneko txerriak eta basurdeak, 25 kilotik beherakoak (gorpuzkia):
.....0,104211

D4 Ardiak, ahuntzak eta bestelako hausnarkariak.

D4.1 18 kilotik gorakoak (gorpuzkia):0,085518

D4.2 12 eta 18 kilo artekoak (gorpuzkia):0,067127

D4.3 12 kilotik beherakoak (gorpuzkia):0,033349

D5 Eskortako hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea.

D5.1 Etxeko hegaztiak, untxiak eta ehiza xehea:0,002453

D6 Haztegia hazitako ehiza.

D6.1 Ugaztunak, 218 kilo edo gehiagokoak(gorpuzkia):1,149435

D6.2 Ugaztunak, 218 kilotik beherakoak (gorpuzkia):0,797139

D6.3 Hegaztiak:0,002453

6. Artikulu honetan aurreikusten diren kenkariak aplikatzeko, Administrazioan osasunaren arloan eskumena duten organoek aurreko idatz-zatietan aipatzen diren betebeharrak betetzen diren edo ez adierazi behar dute aldez aurretik, eta adierazpen hori eskatuko da.

157. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.

Aurreko artikuluetan jasotako arauen arabera egindako likidazioetatik ateratzen diren kuotak direla-eta ez da emango ez salbuespenik ez hobaririk, zein ere den ustiategien titularra edo non ere kokatzen diren ustiategi horiek.

158. artikulua. Arau gehigarriak.

Haragia zuzenean nahiz zeharka esportatu izanagatik ez da tasaren zenbatekoa itzuliko.

III. KAPITULUA. OSASUN PUBLIKOKO LABORATEGIEN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

159. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Osasun Saileko osasun publikoko laborategiek beren zerbitzuak ematea da.

160. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

161. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zerbitzua ematen den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, zerbitzua interesatuak eskatuta ematen denean, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

162. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

| | |
|---|-------|
| 1. Mikrobiologia | |
| 1.1 Mikroorganismo adierazgarrien kontaketa. Parametro bakoitzagatik: | 10,63 |
| 1.2 Patogenoak aberastea eta identifikatzea. Horietako bakoitzagatik: | 26,89 |
| 1.3 Mikroorganismoen serotipoa zehaztea. Horietako bakoitzagatik: | 10,72 |
| 1.4 Mikroskopia bidezko behaketak. | |
| 1.4.1 Fresko dagoela aztertzea: | 3,35 |
| 1.4.2 Tindatu eta aztertzea: | 4,94 |
| 1.4.3 Eremu ilunean egindako azterketa: | 4,28 |
| 1.5 Berariazko parasitologia-teknikak: | |
| 1.5.1 Bizkarroi-elementuen kontzentrazioa: | 10,07 |
| 1.5.2 Bizkarroi-elementuen kontaketa: | 10,07 |
| 1.5.3 Bestelako identifikazio-teknika bakoitzeko: | 15,00 |
| 1.6 Antibiograma: | 15,00 |
| 1.7 Inmunologia-teknikak. | |
| 1.7.1 Elektroforetikoak: | 34,39 |
| 1.7.2 Inmunofluoreszentzia: | 15,00 |
| 1.7.3 Enzimo-inmunoanalisi heterogeneoa (ELISA): | 19,38 |
| 1.7.4 Enzimo-inmunoanalisi homogeneoa: | 4,28 |
| 1.7.5 Zehaztu gabeko beste tekniketako bakoitzagatik: | 38,55 |
| 1.8 Proba biologikoak. | |
| 1.8.1 Bizidunean egindako saioa: | 48,25 |

2. Fisiko-kimikoa

2.1. Tresnarik gabeko teknikak

| | |
|--|-------|
| 2.1.1 Destilazioa: | 11,76 |
| 2.1.2 Lurrungailu birakariaren bidezko destilazioa: | 15,64 |
| 2.1.3 Dekantazio-inbutuarekin erauztea: | 15,00 |
| 2.1.4 Soxhlet bidez erauztea: | 30,29 |
| 2.1.5 Solido/likido erauzketa: | 16,82 |
| 2.1.6 Aldi solidoan egindako matrize-barreiatzea: | 34,39 |
| 2.1.7 Mineralizazioa: | 17,70 |
| 2.1.8 Geruza fineko kromatografia edo paper-kromatografia: | 21,82 |
| 2.1.9 Zutabe-kromatografia: | 25,20 |
| 2.1.10 Grabimetria: | 15,00 |
| 2.1.11 Bolometria: | 6,25 |

2.2. Tresna bidezko teknikak:

| | |
|---|--------|
| 2.2.1 Refraktometria: | 6,25 |
| 2.2.2 Reflektometria: | 6,25 |
| 2.2.3 Potentziometria: | 10,07 |
| 2.2.4 Turbidimetria: | 6,25 |
| 2.2.5 Konduktimetria: | 6,25 |
| 2.2.6 Espektrofotometria ultramorea/ikuskorra: | 12,57 |
| 2.2.7 Gasen kromatografia. Detektatzeko sistema bakoitzagatik, masa-espektrometria salbu | 41,95 |
| 2.2.8 Gasen kromatografia / masa-espektrometria: | 100,05 |
| 2.2.9 Xurgaketa atomikoaren espektrofotometria: | 28,26 |
| 2.2.10 Xurgaketa atomikoaren espektrofotometria / Zeeman efektua: | 41,95 |
| 2.2.11. Proper infragorrian (NIRA) xurgatze bidez egindako azterketa automatizatu. Parametro bakoitzeko: | 16,82 |
| 2.2.12 Bereizmen handiko geruza mehean egindako kromatologia (HPTLC): | 50,02 |
| 2.2.13 Kromatologia likidoa egitea detektagailu arruntarekin: | 71,47 |
| 2.2.14 Kromatografia likidoa egitea diodo-detektagailuarekin: | 112,56 |
| 2.2.15 Ioizko kromatografia: | 41,95 |
| 2.2.16 Infragorriaren espektrofotometria: | 33,61 |
| 2.2.17 ICP-Masak: | 64,22 |

3. Analisi-sortak. Urak

| | |
|---|--------|
| 3.1. Uraren erabateko analisi fisiko, kimiko eta bakteriologikoa, plagizidak, erradioaktibitatea, hidrokarburoak eta trihalometanoak salbu: | 445,86 |
| 3.2. Uraren analisi "kontrol" fisiko, kimiko eta bakteriologikoa: | 37,74 |
| 3.3. Uraren "edateko uren araztegiaren irteera" analisi fisiko, kimiko eta bakteriologikoa: | 139,94 |
| 3.4. Uraren "iturri" analisi fisiko, kimiko eta bakteriologikoa: | 108,38 |
| 3.5. Hondakin-uren analisisa, oinarritzko multzoa, ondorengo hauek sarturik: materia esekia, DBO, DQO, pH, konduktibitatea, anioi bat eta katioi bat: | 47,87 |
| 3.6. DBO, DQO. Horietako bakoitzagatik: | 16,82 |

| | |
|---|--------|
| 3.7. Uraren erabateko analisi fisiko eta kimikoa, plagizidak, erradioaktibitatea, hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak eta trihalometanoak salbu:..... | 413,22 |
| 3.8. Uretan dauden plagiziden analisisa, organofosforatuak, organokloratuak, triazinak:..... | 195,75 |
| 3.9. Uretan dagoen erradioaktibitatearen analisisa, guztizko alfa eta beta:..... | 130,50 |
| 3.10 Uretan dauden hidrokarbuero aromatiko poliziklikoen analisisa:..... | 145,00 |
| 3.11 Uraren "kontrola" analisi fisiko eta kimikoa: | 20,92 |
| 3.12 Uraren "edateko uren araztegiaren irteera" analisi fisiko eta kimikoa:..... | 85,14 |
| 3.13 Uraren "iturri" analisi fisiko eta kimikoa: | 91,56 |
| 3.14 Uraren analisisa "kontrol" bakteriologikoa: | 16,82 |
| 3.15 Uraren "edateko uren araztegiaren irteera" analisi bakteriologikoa:..... | 54,80 |
| 3.16 Uraren "iturri" analisi bakteriologikoa:..... | 16,82 |
| 3.17 Hemodialisi-uraren gutxienezko analisisa (aluminioa, fluoroa, heterotrofoen kontaketa eta Pseudomona aeruginosa):..... | 81,28 |
| 3.18 Hemodialisi-uraren erabateko analisisa: | 362,67 |
| 3.19 Igerileku kloratuen analisisa: | 75,03 |
| 3.20 Igerileku elektrofisikoen analisisa:..... | 93,79 |
| 3.21 Detergente anioiko, katioiko eta ez-ionikoak: | 187,59 |
| 3.22 Halogeno organiko purgakorrak (AOX, POX, TOX):..... | 93,79 |
| 3.23 Trihalometanoak: | 75,03 |
| 3.24 N-Metil-karbamatoak: | 143,82 |
| 3.25 Ditio-karbamatoak:..... | 68,78 |

Interesatuaren eskariz egin beharreko analisisa osatu ahal izateko laginak in situ hartu behar izanez gero, tasaren zenbatekoari 25,07 euro gehituko zaio.

IV. KAPITULUA. FARMAZIA ARLOKO ESTABLEZIMENDU ETA ZERBITZUEI BURUZKO ESPEDIENTEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

163. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea farmazia arloko establezimenduak eta zerbitzuak sortu, abiarazi, lekuz aldatu, aldatu, eskualdatu eta ixteko izapidetze- eta baimentze-zerbitzuak ematea da, administrazioak bere kabuz eman nahiz interesatuaren eskariz eman (Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 3. artikuluan zehazten dira zeintzuk diren establezimendu eta zerbitzu horiek).

164. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira.

165. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zerbitzua ematen den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, zerbitzua interesatuak eskatuta ematen denean, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

166. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Farmazia-bulegoak.
 - 1.1 Farmaziak irekitzeko eskabidea: 93,79
 - 1.2 Tokiz aldatzeko eskabidea: 250,11
 - 1.3 Jabe-aldaketa:
 - 1.3.1 Eskualdatzailearen eskabidea: 437,70
 - 1.3.2 Erostea aukera izateko eskabidea: 218,85
 - 1.3.3 Amortizazio-eskabidea: 406,44
 - 1.4 Obrak egiteko baimenaren eskabidea, obrak farmazia-bulegoan sekzioa sortzeko ez badira: 250,11
 - 1.5 Arduraduna, ordezkaria edo laguntzailea izendatzea: 50,02
 - 1.6 Jarraitzeko ahalmenaren eskabidea: 218,85
 - 1.7 Farmazia behin betiko ixteko eskabidea: 312,65
2. Botikategiak.
 - 2.1 Irekitzeko edo ixteko eskabidea: 187,59
 - 2.2 Tokiz aldatzeko edo obrak egiteko eskabidea: 218,85
3. Lehen mailako arreta emateko farmazia-zerbitzuak, ospitaleetako eta osasun- eta gizarte-zentroetako farmazia-zerbitzuak eta botikategiak.
 - 3.1 Irekitzeko edo ixteko eskabidea: 312,65
 - 3.2 Tokiz aldatzeko edo obrak egiteko eskabidea: 218,85
 - 3.3 Izendatzeak: 50,02
4. Botikak (gizakientzakoak, albaitaritzakoak), sendagaiak eta bestelako farmazi gaiak banatzeko biltegiak.
 - 4.1 Irekitzeko edo ixteko eskabidea: 312,65
 - 4.2 Tokiz aldatzeko edo obrak egiteko eskabidea: 218,85
 - 4.3 Izendatzeak: 50,02
5. Albaitaritzarako botikak saltzen dituzten abelazkuntzako erakunde edo elkarteak eta dendak.
 - 5.1 Farmazi zerbitzua irekitzeko edo ixteko eskabidea: 312,65
 - 5.2 Farmazi zerbitzua tokiz aldatzeko edo obrak egiteko eskabidea: 218,85
 - 5.3 Izendatzeak: 50,02
6. Botiketako sekzioak.
 - 6.1 Farmaziak irekitzeko eskabidea: 312,65
7. Sendagai-pentsua egiteko unitateak.
 - 7.1 Irekitzeko edo ixteko eskabidea: 312,65
 - 7.2 Tokiz aldatzeko edo obrak egiteko eskabidea: 218,85

V. KAPITULUA. OSASUN ZENTRO, ZERBITZU ETA ESTABLEZIMENDUEI BURUZKO ESPEDIENTEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

167. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: administrazioak bere kabuz edo interesatuak eskatuta, osasun-zentroak, -zerbitzuak eta -establezimenduak jartzeko baimenen izapideak egitea; baimenetan funtsezko aldaketak egiteko izapideak egitea eta jardunerako baimenak berritzeko behar diren izapideak egitea. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko araudiak aipatzen ditu osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu horiek guztiak.

168. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

169. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-zerbitzuak eskaintzen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, zerbitzua interesatuak eskatuta ematen denean, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

170. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Osasun-zentroa, -zerbitzua, edo -establezimendua jartzeko baimena eskatzea

| | |
|--|----------|
| 1.C.1 Ospitaleak | 1.402,00 |
| 1.C.2 Ospitalean sartu gabeko osasun-asistentzia emateko | |
| 1.C.2.1 Mediku-kontsultak | 280,50 |
| 1.C.2.2 Osasun-arloko beste profesional batzuen kontsultak | 280,50 |
| 1.C.2.3 Lehen mailako arreta emateko zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.4 Zerbitzu anitzetarako zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.5 Zentro espezializatuak | |
| 1.C.2.5.1 Hortz-klinikak | 841,50 |
| 1.C.2.5.2 Giza ugalketa lagundurako zentroak | 841,50 |
| 1.C.2.5.3 Hurdunaldia nahita eteteko zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.5.4 Kirurgia handi anbulatorioko zentroak | 841,50 |
| 1.C.2.5.5 Dialisi-zentroak | 841,50 |
| 1.C.2.5.6 Diagnosi-zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.5.7 Osasun-asistentziako zentro ibiltariak | 561,00 |
| 1.C.2.5.8 Odol-transfusioko zentroak | 841,50 |
| 1.C.2.5.9 Ehunen bankuak | 841,50 |
| 1.C.2.5.10 Osasun-azterketa egiteko zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.5.11 Osasun mentaleko zentroak | 561,00 |
| 1.C.2.5.90 Beste zentro espezializatu batzuk | 841,50 |
| 1.C.2.90 Ospitalean sartu gabeko osasun-asistentzia emateko beste gune batzuk | 561,00 |
| 1.C.3 Osasun-arloaz besteko erakunde batean sartutako zerbitzuak | 561,00 |
| 1.E.3 Optikak | 841,50 |
| 1.E.4 Ortopediak | 841,50 |
| 1.E.5 Entzumenaren protesirako establezimenduak | 841,50 |

2. Jarduteko baimenean funtsezko aldaketak egiteko eta baimena berritzeko eskabidea: aurreko 1. tarifiaren ezarritako zenbatekoaren % 50.

VI. KAPITULUA. OSASUN ARLOKO PUBLIZITATEARI BURUZKO ESPEDIENTEENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

171. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea osasun-arloko publizitateari buruzko izapideak eta baimenak bideratzea da, Administrazioak bere kabuz nahiz interesatuak eskatuta. Osasun-arloko publizitatea arautzen duen urriaren 15eko 550/1991 Dekretuan arautzen dira izapide horiek.

172. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira.

173. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren administrazio-zerbitzuak eskaintzen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, zerbitzua interesatuak eskatuta ematen denean, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

174. artikulua. Kuota.

Tarifa honen araberakoa izango da tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Publizitatea egiteko baimena eta baimenean funtsezko aldaketak egitea eskatzea: 91,80
2. Baimena berritzea edo azaleko aldaketak egitea: aurreko 1. tarifan ezarritako zenbatekoaren % 50.

VII. KAPITULUA. OSASUN-PRODUKTUAK NEURRIRA FABRIKATZEKO LIZENTZIA LORTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

175. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: osasun-produktuak neurrira fabrikatzeko lizentzia lortzeko izapideak egitea, administrazioaren kabuz edo interesatuak eskatuta. Produktu horiek mediku espezialista batek idatziz eginiko aginduari jarraituz fabrikatzen dira, berariaz. Idatzizko agindu horretan, medikuak, ardura bere gain harturik, diseinuaren berariazko ezaugarriak zehaztuko ditu, eta gaixo jakin batentzat baizik ez direla adieraziko.

176. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren zerbitzuak jasoko dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira.

177. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tasa ordaintzeko betebeharra zergapeko egitatea osatzen duten administrazio-jarduerak gauzatzen diren unean bertan sortuko da. Halere, zerbitzua interesatuaren eskariz ematen denean, eskabidea egiten den unean eska daiteke tasa ordaintzea.

178. artikulua. Kuota.

Tasaren zenbatekoa 513,06 euro izango da.

VIII. TITULUA. ETXEBIZITZA ETA ERAIKUNTZA ALORREKO TASAK

I. KAPITULUA. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEI DAGOKIENEZ, KALIFIKAZIOAK ETA ZIURTAPENAK EMATEKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

179. artikulua. Zergapeko egitatea.

Etxebizitzei babes ofizialeko kalifikazioa eta ziurtapena esleitu aurretik eman beharreko zerbitzuak dira tasa honen zergapeko egitatea, hain zuzen ere, proiektuak aztertzea, ziurtapenak egiaztatzea eta obrak ikuskatzea.

180. artikulua. Subjektu pasiboa.

Babes ofizialeko etxeen eraikuntza sustatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak dira tasa honen subjektu pasiboak, alegia, babes ofizialeko etxeen alde ezarritako onurak eskatzen dituztenak edo halakotzat jotzeko ikuskatu edo kalifika ditzatela eskatzen dutenak.

181. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren administrazio-jarduketak gauzatzen diren unean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, etxebizitzak behin behingoz babes ofizialekotzat jotzeko eskaera aurkezten den unean eska daiteke tasa ordaintzea.

182. artikulua. Tasaren zenbatekoaren osagaiak.

Babes ofizialeko etxebizitza guztietarako karga-tasa babesgai den aurrekontu osoaren % 0,07koa izango da. Babesgai den aurrekontua Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko Legea garatzeko Araudia onartzen duen uztailaren 24ko 2114/1968 Dekretuaren 5.h) artikuluan dago zehaztuta, eta, haren arabera, tasa ez da aurrekontu horretan sartzen.

Lurren eta egin beharreko hirigintza-lanen balioaren egiaztapenik eduki ezean, legez zilegi den handiena hartuko da zerga-oinarritzat.

Prezio-gorabeherak, obra-unitateen aldaketak edo aurrekontu gehigarriak direla-eta babesgai den aurrekontu osoak gora egiten badu, behar diren likidazio osagarriak egingo dira, ateratzen den gehikuntza oinarri hartuta.

183. artikulua. Salbuespenak.

Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileak salbuetsita egongo dira tasa honetatik.

II. KAPITULUA. ERAIKUNTZAKO KALITATEAREN KONTROLERAKO LABORATORIOAREN ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

184. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Eraikuntzako Kalitatearen Kontrolerako Laborategiaren lanak eta saiakerak dira, bai interesatuen eskariz egindakoak, bai Administrazioaren kabuz egindakoak.

185. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak edo lanak jasotzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak dira tasa honen subjektu pasiboak.

186. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zerbitzua ematen den unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

187. artikulua. Kuota.

Tasa hau Lege honen I. Eranskinean jasotako tarifaren arabera eskatuko da.

IX. TITULUA INGURUMEN ALORREKO TASAK

I. KAPITULUA. HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUEI BURUZKO INFORMATIKA-MATERIALA ETA KONTROL ETA ZAINKETARAKO AGIRIAK JASOTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

188. artikulua. Zergapeko egitatea.

Honako hau da tasa honen zergapeko egitatea: hondakin arriskutsuen ekoizleen urteko aitortpena betetzeko behar diren informatika-gaiak ematea eta hondakin horien kontrola eta zainketa egiteko agiriak ematea (Hondakinen apirilaren 21eko 10/1998 Legeak eta lege hori garatzeko arauak eskatzen dute betebeharrak horiek betetzea).

189. artikulua. Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitate diren materiala edo dokumentuak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak dira tasa honen subjektu pasiboak.

190. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Zergapeko egitate diren zerbitzuak edo ondasunak hartzean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

191. artikulua. Kuota.

Tasa honen kuota tarifa honen arabera eskatuko da (eurotan):

1. Hondakin toxikoak sortzen dituztenen urteko adierazpena betetzeko informatika-aplikazioaren kopia bakoitzeko: 9,35
2. Hondakin toxikoak kontrolatzeko eta zaintzeko agiri bakoitzeko: 0,29

X. TITULUA. GARRAIO, KONTSUMO ETA MERKATARITZA ALORREKO TASAK

I. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN PORTUETAN EMATEN DIREN ZERBITZU OROKOR ETA BEREZIENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

192. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea honako zerbitzu hauek ematea da:

a) T-1 tarifa. Itsasontziak.

Tarifa honen trukean, itsasontziak portuko urez, itsas seinaleez eta balizez baliatu ahal izango dira, baita itsasotik portura iristea ahalbidetzen duten obrez eta antolabideez ere. Halaber, portu hartzeko eskubidea ere izango dute, adierazi zaien lekuan, moilaren kontra amarratuz, lotune batean amarratuz edo aingura botata.

b) T-2 tarifa. Bidaiariak.

Tarifa honen trukean, bidaiariak portuaz baliatu ahal izango dira, eta kaiak, pantalanak, lehorreko sarbideak, igarobideak eta itsas geltokiak ere erabili ahal izango dira.

c) T-3 tarifa. Salgaiak.

Tarifa honen trukean, salgaiak garraia daitezke portuan zehar, kai eta pantalanetatik, lehorreko sarbideetatik, igarobideetatik eta manipulazio-guneetatik (biltzeko guneak eta biltegiak izan ezik).

d) T-4 tarifa. Itsas arrantzako ontzietarako zerbitzuak.

Tarifa honen trukean, portura iristea ahalbidetzen duten obrak eta instalazioak baliatu ahal izango dituzte arrantza utzi ez duten arrantza-ontziek. Itsasotik ekarritako arrantza freskorako ere baliatu ahal izango dira obra eta instalazio horiek; arrantza-ontziak moilaren kontra edo lotune batean amarratuta edo aingura botata egon ahalko dira bertan. Halaber, arrainak manipulatzeko zonaz baliatu ahal izango dira, arraina sailkatzeko, lehen salmentarako erakusketa egiteko eta merkaturatzeko, bai eta portuko zerbitzu orokorrez ere.

e) T-5 tarifa. Kirol- eta jolas-ontzietarako zerbitzuak.

Tarifa honen trukean, kirol eta aisialdiko ontziak itsasotik portura iristea ahalbidetzen duten obrez eta instalazioez baliatu ahal izango dira. Halaber, seinalatu dieten moduan eta lekuan amarratzeko eskubidea ere izango dute: moilaren kontra, lotune batean edo aingura botata. Bestalde, eskifaiako kideek eta bidaiariek, behar den saria ordaindu ondoren, honako hauek erabili izango dituzte: portuko kaiak, pantalanak, lehorreko sarbideak, igarobideak eta, baleude, portuko agintaritzaren egonlekuak eta harrera-tokiak.

f) T-6 tarifa. Arku-garabien zerbitzua.

Tarifa honen barruan arku-garabi arrunten erabilera sartzen da, ez ordea garabi espezializatuena.

g) T-7 tarifa. Biltegi, lokal eta eraikinak erabiltzea.

Tarifa honen trukean, baimen edo kontzesio-erregimenean kudeatzen ez diren zabalgunek, zelaiak, aterpeak, estalpeak, biltegiak, lokalak eta eraikinak eta dagozkien zerbitzu orokorrak erabili ahal izango dira.

h) T-8 tarifa. Produktuez eta energiaren hornitzea.

Tarifa honen barruan, horni gisa emandako produktuen edo energiaren balioa eta behar diren instalazioen erabilera sartzen da.

i) T-9 tarifa. Askotariko zerbitzuak.

Tarifa honen barruan, baskulak, arranpa-karroak, aparkalekuak edo portuko beste edozein zerbitzu erabiltzea sartzen da.

Portuetako aparkaleku-zerbitzua kontzesio-erregimenean kudeatu ahal izango da.

j) C-1 tarifa. Kontzesioak.

Tarifa honen trukean, portuko jabari publikoa okupatu edo erabili ahal izango da kontzesio bidez.

k) A-1 tarifa. Baimenak.

Tarifa honen trukean, portuko jabari publikoa okupatu edo erabili ahal izango da baimen bidez.

193. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak honako pertsona fisiko edo juridiko hauek dira:

- a) T-1 tarifyan, tarifa honen peko zerbitzuak darabiltzaten ontzi-jabeak edo beren ordezkariak edo ontzien kontsignatarioak.
- b) T2 tarifyan, portuetan itsasoratzen edo lehorreratzen diren bidaiariak daramatzaten ontzien jabeak edo kontsignatarioak.
- c) T-3 tarifyan, zerbitzua darabilten itsasontzien jabeak edo kontsignatarioak solidarioki, eta salgaia lehorretik lehorreko baliabide hutsez sartu edo ateratzen denean, garraio bidearen jabeak. Tarifa ordaintzearen erantzule subsidiarioak salgaiaren jabeak izango dira, edo beren baimena duten ordezkariak, solidarioki.
- d) T-4 tarifyan, ontzi-jabea edo bere izenean lehenengo salmenta egiten duena, solidarioki. Tarifaren zenbatekoa arrainen lehenengo eroslearen gainera igaroaraziko da, eta horren berri adierazi beharko da, berariaz eta bereizita, fakturan edo horren antzeko agirian. Eroslea beharturik geratuko da sari hori ordaintzera. Tarifa ordaintzearen erantzule subsidiarioa arrantzaren lehenengo eroslea izango da, baldin eta fakturan ez badu frogatzen tarifa bere gainera igaroarazia izan dela eta ordaindu egin duela.
- e) T-5 tarifyan, ontzi-jabea edo bere baimena duen ordezkaria, eta, subsidiarioki, kapitaina edo patroia.
- f) T-6, T-7, T-8 eta T-9 tarifetan, dagozkien zerbitzuen erabiltzaileak.
- g) C-1 tarifyan, administrazio-kontzesioaren titularrak.
- h) A-1 tarifyan, administrazio-baimenaren titularrak.

194. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Noiz ordaindu behar den tasa:

- a) T-1 tarifyan, ontzia portura sartzten denean, kaian loturik geratu den edo aingura botatzeko lekua seinalatu zaion berdin diola.
- b) T-2 tarifyan, bidaiariak portutik igarotzen hasten direnean.
- c) T-3 tarifyan, salgaiak portutik igarotzen hasten direnean.
- d) T-4 tarifyan, arrantza ontziratzen, lehorreratzen edo ontziz aldatzen hasten denean.
- e) T-5 tarifyan, itsasontzia portuko uretan sartzten denean.
- f) T-6, T-7, T-8 eta T-9 tarifetan, dagozkien zerbitzua erabiltzailearen eskuera jartzen denean edo, bestela, zerbitzua ematen hasten denean.
- g) C-1 tarifyan, administrazio-kontzesioaren agiria ematen denean.
- h) A-1 tarifyan, administrazio-baimenaren agiria ematen denean.

195. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa likidatzeko oinarriak honako hauek dira:

- a) T-1 tarifyan, neurtze gordineko (GT) unitatea edo frakzioa, eta hiru ordukoaldiak edo frakzioa, gehienez ere lau aldi hogeita lau orduko.
- b) T-2 tarifyan, bidaiari-kopurua eta pasaiaren, trafikoaren eta eragiketaren motak.
- c) T-3 tarifyan: salgaiaren, pisuaren, trafikoaren eta eragiketaren motak.

- d) T-4 tarifyan, arrainaren lehenengo salmentak izan duen balioa eta, hurrengoetan, portuko agintariek jarritakoa, arrain-mota horiek tasa likidatzeko egunean edo aurreko egunetan izan duten batez besteko balioa kontuan izanik.
- e) T-5 tarifyan, ontziaren guztizko luzera bider guztizko zabalera, eta hortik ateratzen den eremua, metro karratutan. Baita kaian lotuta edo aingura botata emandako aldia ere.
- f) T-6 tarifyan, ekipoa eskueran izandako epealdia eta haren jasotze-indarra edo ahalmena.
- g) T-7 tarifyan, harturiko eremuaren zenbatekoa eta mota, eta okupazio-aldia.
- h) T-8 tarifyan, horni gisa emandako unitateen kopurua.
- i) T-9 tarifyan:
- a') Baskula: zenbat aldiz erabili den.
- b') Arranpa-karroa: zenbat aldiz jaso eta jaitsi den, ontzia zenbat egunetan egon den lehorrean, eta ontziaren erregistro gordineko tonak eta luzera.
- c') Aparkalekua: horretarako zehazturiko guneeetan egindako egonaldia, portuen arabera.
- d') Gainontzeko zerbitzuetan, kasu bakoitzean emandako zerbitzu-unitateen kopurua.
- j) C-1 tarifyan, portuko jabari publikoan okupaturiko eremua, metro karratutan.
- k) A-1 tarifyan, erabilerak portuko jabari publikoko lursailak okupatzea dakarrenean: harturiko eremua (metro karratutan) eta okupazioaren iraupena.

196. artikulua. Kuota.

Tarifa honen arabera izango da tasaren zenbatekoa:

1. T-1 tarifyaren zenbatekoa hauxe izango da:

1.1. Oro har.

Ontziak 0,044645 euro ordaindu behar du neurtze gordineko unitateko edo horren frakzioko, 3 orduko aldi edo frakzio bakoitzeko, gehienez ere 4 alditan egon daitekeelarik 24 orduko.

Ezinbesteaetik porturatu beharreko ontzietan, tarifa honen arabera legokiekeenaren erdia aplikatuko zaie, betiere portuko zerbitzuak erabiltzen ez badituzte, ez industriakoak, ezta merkataritza ere. Ez da baldintza hori ezarriko itsasoan dabiltzaneren bitzita zaintzea xede duten zerbitzu-eskeetan; salbuetsita egongo dira.

1.2. Urtebetean 12 bider baino gehiagotan porturatzen diren ontzietan honako tarifa hauek aplikatuko zaizkie:

- 13.etik 24.era arteko sarraldietan: tarifa arruntaren % 85
- 25.etik 40.era arteko sarraldietan: tarifa arruntaren % 70.
- 41.etik aurrerakoetan: tarifa arruntaren % 50.

1.3. Nabigazio-linea erregularretan, eta erregular izatearen kalifikazio hori urte bakoitzaren urtarilaren 1a baino lehen frogatzen bada portuko agintaritzan, honako hauek izango dira ontzietan aplikatu beharreko tarifak:

- 13. sarraldietik 24.era artekoetan: tarifa arruntaren % 90
- 25. sarraldietik 50.era artekoetan: tarifa arruntaren % 80.
- 51. sarraldietik aurrerakoetan: tarifa arruntaren % 70.

1.4. Turismo-bidaldiak egiten dituzten ontzietan tarifa arrunta aplikatuko zaie, % 30 murriztuta.

1.5. Jardunean ez dauden ontziek; zainketarako langileak baino ez dituztenek eta egiten, konpontzen edo desegiten daudenen T-1 tarifa aplikatuz gero legokiekeen zenbatekoaren % 50 ordainduko dute. Ontziaren jardueraren etena hilabetetik gorakoa bada, aldeaz aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango da. Bi hilabetetik gorakoa bada, ordea, ez du izango inolako murrizketarako eskubiderik, salbu eta ontzia egiten ari badira, kasu horretan tarifa murriztua ordaintzen jarraituko baitute. Jardunik gabe lau hilabete igaro ondoren, % 5eko gehikuntza metakorra izango dute hileroko.

1.6. Badiako edo tokiko barne-trafikorako ontziek, basea portuetan dutenek, dragek, ur-tanga ontziek, gangilek, gabarrek eta antzekoek, pontoiek eta abarrek tarifaren % 25 ordainduko dute.

1.7. Kaien albotik lotuta dauden ontzietan beste batzuk lotzen bazaizkie, tarifaren erdia kobratuko zaie bigarren leerroan daudenei.

1.8. Amarrak askatzeko edo lotunez aldatzeko agindua jaso duen ontziak maniobra horiek atzeratzen baditu, agintaritzak ezar diezazkion zigorrez gain, beste zenbateko hauek ere ordaindu beharko ditu:

- Lehenengo hiru egunetako bakoitzagatik edo zatikiagatik: 24 orduko tarifari dagokion zenbatekoa.

- Hurrengo ordubete bakoitzeko: 24 orduko tarifa halako 5.

1.9. Edozein arrazoi dela-eta ontzi batek baimenik gabe amarratzen badu, aurreko puntuan adierazitako tarifa berbera ordaindu beharko du; horrek, hala ere, ez dio eskubiderik emango han irauteko, eta amarrak askatu behar ditu hala agintzen diotenean, baita isunak ordaindu ere jokabide horri hala badagokio.

1.10. Moilara muturretik lotutako ontziek eta zerbitzuko ilabeetara edo buietara lotutakoek tarifa arruntaren erdia ordaindu beharko dute.

1.11. Ostiral arratsaldeko 20etatik astelehen goizeko 8ak arte amarratzen duten ontzietan (ordu horiek biak ere barne), eta jai bezperako 20etatik jai ondoko hurrengo egun balioduneko 8ak arte amarratzen dutenei (ordu horiek biak barne) T-1 tarifari 3 ordugatik dagokion zenbatekoaren % 65 baino ez zaie ordainaraziko, beti ere lanaldia jai osteko egunean hasia aurreikusita badute.

Hobari horri heltzeko nahia portuko agintaritzari jakinarazi behar zaio idatziz, ontzia sartu baino lehenago.

2. T-2 tarifaren zenbatekoa hauxe izango da:

2.1. Bidaiari bakoitzeko (eurotan):

| <u>Trafiko-mota</u> | <u>Bidaiari-kategoriak</u> | | |
|---|----------------------------|-------------------|------------------|
| | <u>III. blokea</u> | <u>II. blokea</u> | <u>I. blokea</u> |
| Badia edo tokikoa: | 0,025512 | 0,051023 | 0,051023 |
| Europako itsasbazterrean aritzen diren ontziak: | 0,331655 | 0,988588 | 3,348444 |
| Kanpokoak: | 2,232296 | 5,612630 | 8,93 |

Badiako edo tokian bertako joan-etorrietan ontziratzean ordainduko da tarifa.

Lagun bakarrarentzako edo birentzako geletako bidaiariei I. multzoko tarifa ezarriko zaie; II. multzokoa hiru edo gehiagorentzako geletan edo aretoko besaulkietan doazenei; eta III. multzokoa kubiartako bidaiariei.

2.2. Turismoko bidaiari gisa doazenei aurreko taularen tarifa ezarriko zaie, baina % 30 murriztuta.

2.3. Bidaiari-kopurua, pasaia-mota edo trafiko-mota modu zehaztugabea emanaz gero, edo ezkutatzuz gero, aurreko taulako tarifaren bikoitza ezarriko zaio gaizki aitorturiko edo aitortu gabe utzitako partidari.

3. T-3 tarifaren zenbatekoa hauxe izango da:

3.1. Salgaien partida bakoitzari aplikatu beharreko tarifa-zenbatekoak, pisu gordinaren tona edo horren frakzio bakoitzeko, eta indarrean dagoen salgaien sailkapenari jarraiki dagokion multzoaren arabera, ondoko taulan ematen dira (eurotan):

| Tokikoa edo badia, | | | |
|-----------------------|---|--------------------|---------------------------|
| <u>Salgai-multzoa</u> | <u>Ontziratzea edo ontzitik ateratzea</u> | <u>ontziratzea</u> | <u>Ontzitik ateratzea</u> |
| Lehenengoa: | 0,108426 | 0,369923 | 0,599531 |
| Bigarrena: | 0,146693 | 0,535751 | 0,861029 |
| Hirugarrena: | 0,216852 | 0,797248 | 1,275598 |
| Laugarrena: | 0,306144 | 1,173550 | 1,881506 |
| Bosgarrena: | 0,433703 | 1,594497 | 2,551195 |

Salgaien artean, petrolio-gaiak eta horien eratorriak, T-3 tarifa likidatze aldera, honela sailkatuko dira:

| Produktua | Tarifa-multzoa |
|--|----------------|
| Petrolio ondu gabea: | Lehenengoa |
| Gasolioa eta fuel-olioa: | Bigarrena |
| Nahaslika, pikea eta petroliotik ateratako galipota: | Hirugarrena |
| Gasolinak, naftak eta petrolio findua: | Laugarrena |
| Baselina eta labaingarriak: | Bosgarrena |

Salbuespenez, itsasertzeko nabigaziorako gasolioari eta fuel-olioari 0,293388 euroko tarifa aplikatuko zaie.

Itsasontzi handi eta txikiak zuzkitzearen, portura lehorretik sartzen diren petrolio-gaiei ezarriko zaien tarifa ontziratze-eragiketan gai berberei aplikatzen zaienaren erdia izango da.

Guztira tona bateko pisua izatera iristen ez diren partidei ezarriko zaien zenbatekoa (200 kg-ko edo hortik gorako frakzio bakoitzeko) tona bakoitzeko ordaindu beharko litzatekeenaren bostena izango da.

3.2. Igaroaldiko lanetako salgaien partida bakoitzari ezarri beharreko tarifa-zenbatekoak ondoko taulan ematen dira (eurotan), pisu gordinaren tona edo horren frakzio bakoitzeko, eta indarrean dagoen salgaien sailkapenari jarraiki dagokien multzoaren arabera:

3.2.1. Itsasoko iragaitzako eragiketak:

| Salgai-multzoa | Abiapuntua Europar Batasunean | | Abiapuntua atzerrian | |
|--------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|--------------------------------|
| | Azken helmuga | | Azken helmuga | |
| | Europar B. beste herrialde bat | Europar B. beste herrialde bat | Europar B. beste herrialde bat | Europar B. beste herrialde bat |
| Lehenengoa: | 0,153071 | 0,299766 | 0,299766 | 0,605909 |
| Bigarrena: | 0,216852 | 0,433703 | 0,433703 | 0,861029 |
| Hirugarrena: | 0,318899 | 0,637799 | 0,637799 | 1,275598 |
| Laugarrena: | 0,471971 | 0,943943 | 0,943943 | 1,881506 |
| Bosgarrena: | 0,637799 | 1,275598 | 1,275598 | 2,551195 |

3.2.2. Lehorreko iragaitzako eragiketak:

| Salgai-multzoa | Abiapuntua Europar Batasunean | | Abiapuntua atzerrian | |
|--------------------|-------------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| | Azken helmuga | | Azken helmuga | |
| | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat |
| Lehenengoa: | 0,153071 | 0,369923 | 0,369923 | 0,369923 |
| Bigarrena: | 0,216852 | 0,535751 | 0,535751 | 0,535751 |
| Hirugarrena: | 0,318899 | 0,797248 | 0,797248 | 0,797248 |
| Laugarrena: | 0,471971 | 1,173550 | 1,173550 | 1,179928 |
| Bosgarrena: | 0,637799 | 1,594497 | 1,594497 | 1,594497 |

3.3. Ontziz aldatzeko lanetako salgaien partida bakoitzari ezarri beharreko tarifa-zenbatekoak ondoko taulan ematen dira (eurotan), pisu gordinaren tona edo horren frakzio bakoitzeko, eta indarrean dagoen salgaien sailkapenari jarraiki dagokien multzoaren arabera:

| Salgai-multzoa | Abiapuntua Europar Batasunean | | Abiapuntua atzerrian | |
|--------------------|-------------------------------|------------------------|------------------------|------------------------|
| | Azken helmuga | | Azken helmuga | |
| | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat | EB beste herrialde bat |
| Lehenengoa: | 0,153071 | 0,299766 | 0,299766 | 0,599531 |
| Bigarrena: | 0,216852 | 0,433703 | 0,433703 | 1,881029 |
| Hirugarrena: | 0,318899 | 0,637799 | 0,637799 | 1,275598 |
| Laugarrena: | 0,471971 | 0,937565 | 0,937565 | 1,881506 |
| Bosgarrena: | 0,637799 | 1,275598 | 1,275598 | 2,583086 |

3.4. Itsasbazterretik ibiltzen diren ontziak urez hornitzeko tarifa 3.1 puntuko taulako lehenengo multzokoaren % 20koa izango da.

3.5. Nazioarteko zirkulazio-erregimeneko trafikoan, hots, salgaiak atzerriko portu batetik etorri eta, berriz ere, atzerriko beste portu baterantz ateratzen direnean, portuko administrazioak 3.1 puntuko taulako zenbatekoei zuzenketa-koefizienteak ezarri ahal izango dizkie urtero, erabiltzaile bakoitzak daukan trafiko-bolumenaren arabera.

Edukiontzien eraman-ekarrietan, gainera, edukiontzian garraiatzen diren salgai guztiak batez beste dagokien multzokoak bailiran hartu ahal izango dira kalkuluak errazteko, salgaien sailkapena kontuan harturik, eta batez besteko pisua izango balute bezala, zama-unitate bakoitzeko. Garraio eta Herrilan Sailekoek bereziki egiaztatu eta frogatu beharko dute bosgarrena ez den beste multzorik sortzen den, non edukiontzi hutsak sartzen baitira, edo zama garbiaren batez besteko pisua 10 tona baino gutxiagokoa den TEU bakoitzeko. Edonola ere, sail horrek onartu behar ditu erregimen berezi hauek, T-3 tarifaren zenbatekoak

zehaztearren araudi bidez ezartzen diren irizpideak aintzat hartuz, eta murrizketa ezingo da izan 3.1 puntuko taulan jasotako tarifa aplikatuz gero legokiokeena baino % 50 handiagoa.

3.6. Europar itsasbazterreko nabigazioz garraiatzen diren siderometalurgiako produktuei (Short Sea Shipping) % 35eko murrizketarekin aplikatuko zaie T-3 tarifa.

4. T-4 tarifaren zenbatekoa hauxe izango da:

4.1. Oro har, zerga-oinarriaren % 2.

4.2. Bakailao berdeagatik eta ontzian bertan industri prestakuntzaren hastapenak izan dituen arrain freskoagatik, tarifaren % 50 ordainduko da.

4.3. Portuko uretan, moilatik pasa gabe, ontzitik ontzira aldatutako arrain freskoagatik, tarifaren % 75 ordainduko da.

4.4. Portuko administrazioak baimena ematen badu lehorretik portura arrain freskoa sartzeko, portuko instalazioak erabiltzearren edo arraina enkantean saltzearren, tarifaren % 50 ordainduko da produktu horiengatik, betiere T-4 tarifa edo baliokidea beste portu batean ordaindu dutela frogatzen badute. Osterantzean, tarifa osoa ordaindu beharko dute.

4.5. Lehorreratu den, baina, edozein arrazoi dela-eta, saldu ez den eta berriro ontziratatu den arrain freskoagatik, tarifaren % 25 ordainduko da. Kalkulua egiteko, egun horretan antzeko espezieen salmentaren batez besteko prezioa hartuko da oinarri.

4.6. Tarifa hori ordaintzen duten arrantzuntziak ez dira behartuta egongo gainerako tarifak, zerbitzu orokorretakoak, ordaintzera; gehienez hilabetean egongo dira betebeharrak horretatik libre, zama lehorreratzen edo ontzitik ontzira aldatzen hasi denetik. Epe hori luzatu egin daiteke ezinbestek eragindako geldialdiengatik (aldi bateko konponketak, kostaldeko debekaldiak edo ohiko jardueri buruzko lizentziak), baina eskudun agintaritzak emandako ziurtagirien bidez frogatu behar da. Ezinbestek eragindako geldialdia luzea baldin bada, eskudun agintaritzak zehaztuko ditu lekuak aingura botata geratzeko edo moilaren kontra loturik geratzeko, portuko beharrianak eta aukerak kontuan izanda. Edonola ere, geldialdia sei hilabete baino luzeagoa denean, epe hori igarotzen denetik aurrera T-1 tarifaren % 100 ordainduko dute. Geldialdia hamabi hilabete baino luzeagoa bada, hamahirugarren hilabetetik aurrera tarifa % 2 gehituko da hileko, eta gehikuntza metatu egingo da gainera.

4.7. Arrantzuntziak aurreko baldintzan zehazturiko tarifen pean dauden artean, ez dute ordaindu beharko T-3 tarifa arrantza-kaietan edo berariaz egokitutako beste kai batzuetan beren kontsumorako ontziratzen duten erregaiarengatik, hornidurarengatik, ontzi eta arrantza-tresnarengatik eta izotzarengatik eta gatzarengatik.

Portuko administrazioak arrainen pisua, kalitatea eta espezieak egiaztatu ahal izango ditu, eta horren gastuak tarifa ordaindu behar duenaren kontura izango dira.

4.8 Salmenta publikoko aretoetako titularrek T-4 tarifa biltzen lagundu behar dute, hau da, beren instalazioetatik igarotako arrainen ondorioz bildu beharreko dirua biltzen. Gero, jasotako diru-kopuru hori Portuetako Lurralde Zerbitzuen diru-sarreraren kontuetan sartu behar dute. Halaber, hilerok aitortu behar dituzte egindako likidazioak esandako zerbitzu horietan, kontrola eta ikuskaritza egite aldera.

Aitorpen horietan honako xehetasun hauek jasoko dira:

- Ontzi-jabearen izena.
- Ontziaren izena eta matrikula.
- Saldutako edo, hala balitz, erretiratutako kopurua, espezieka.

- Salmentan iritsitako prezioa.
- Eroslearen izena.
- Ordaindutako tarifa.

Salmenta publikoko aretoetako titularrek horrenbesteko bat jasotzeko eskubidea izango dute, kobrantza-saria deiturikoa, egindako kudeaketagatik. Kobrantza-saria zerga-oinarriaren % 0,5 izango da, eta tarifa honen deskontu berberak aplikatuko dira.

5. T-5 tarifaren zenbatekoa hauxe izango da:

5.1. Oro har.

| Modalitatea | euro/m ² -ko eta eguneko |
|---|-------------------------------------|
| Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinalerik gabe edo ainguran jartzeko tresneriarik gabe: | 0,031890 |
| Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinale edo ainguran jartzeko tresneria eta guzti | 0,063780 |
| Kaietan lotuta: | 0,076536 |
| Pantalanetan lotuta: | |
| Urte osoa edo epe luzeagoa kontratatzea: | |
| 0,095670 | |
| Urtebete baino gutxiagorako kontratua: | 0,140315 |

Ontzia instalazio finko batean (lurrari atxikitako obra zibila) edo instalazio flotatzaile batean lotzea moilaren kontra lotzearen pareko izango da, baldin eta instalazioak ontziak bereizteko fingerrik ez badu eta ez badago ez ur ez argindar-zerbitzurik.

5.2. Kirol-kai eraiki berrietan, pantalanari amarratzeagatik ordaindu beharreko T-5 tarifaren zenbatekoa honako hau izango da:

| Amarratzea alokatzea | euro/m ² -ko eta eguneko |
|---|--|
| Urtekoa (urtebete osoa alokatzea edo urtebete baino gehiago alokatzea): . | 0,165828 |
| Eskari handiko denboraldian (gutxienez 30 eguneko alokatzea): | 0,229607 |
| Eskari txikiko denboraldian (gutxienez 30 eguneko alokatzea): | 0,127560 |
| <u>Iragaitzako ontzientzat diren amarra-lekuak alokatzea</u> | <u>euro/m²-ko eta eguneko</u> |
| Eskari handiko denboraldian: | 0,433703 |
| Eskari txikiko denboraldian: | 0,267875 |

Horrelakoetarako, kirol-kai eraiki berrizat joko da berariaz kirol-ontziek edo jolas-ontziek erabiltzeko eraikitakoa edo izendatutakoa. Eskari handiko denboraldizat joko da maiatzaren 1etik irailaren 30a arte doana, eta eskari txikiko denboraldizat gainerako guztia.

Ontzia instalazio finko batean (lurrari atxikitako obra zibila) edo instalazio flotatzaile batean lotzea moilaren kontra lotzearen pareko izango da, baldin eta instalazioak ontziak bereizteko fingerrik ez badu eta ez badago ez ur ez argindar-zerbitzurik.

5.3. Moilaren edo pantalan flotatzaileen kontra luzeran loturiko ontziei albotik lotzen zaizkienek aurreko taulan agertzen den tarifaren % 50 ordainduko dute, hots, moilan lotzeagatik ordaintzen denaren erdia.

5.4. Metro bat eta metro bi bitarteko sakonera duten guneetan aingura botata edo lotuta dauden ontziei % 25eko murrizketa egingo zaie, baina hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Ontziaren luzera 6 m baino laburragoa izatea.
- b) Motorearen indarra 25 HPkoa baino txikiagoa izatea.
- c) Tarifa hiruhilabeteka ordaintzea, aldezturik.

Murriztapen hau ez zaie ezarriko pantalanetan amarratutako ontziei

Sakonera metro bat baino gutxiagokoa bada, % 50eko murrizketa aplikatuko da.

5.5. Ehuneko 75eko murrizpena egingo zaie itsasaldiak direla-eta lehorrean geratzen diren plazetan dauden ontziei, eta arrazoi beragatik itsasoan ibili ezinda geratzen direnei.

5.6. Portuko erakundearen lehorreko tokietan dauden ontziei dagokienez, likidazioaren aldiko egunen % 25 izango dira tarifa ordaindu beharrekoak, eta ez da begiratuko zenbat egunez ibili den itsasoan edo eremuaz edo lokalaz baliatu izanagatik ordaindu beharreko T-7 eta T-9 tarifa ordaindu den edo ez.

5.7. Portuaren kanpoaldean edo portuaren ondoko aldean geratzen diren aisialdiko ontziei 5.1 arauaren tarifaren % 40 kobratuko zaie, portuko zerbitzuen hurbiltasunetik edo erabileratik ateratzen duten onuragatik, baina murrizketa hori bateraezina izango da arau hauetan jasotzen den beste edozeinekin.

5.8. Bai ainguratze-zerbitzua bai amarratzekoa ere portuko administrazioan eskatu behar dira. Osterantzean, tarifa bikoitza ordainduko da, behar bezalako postua arauz eman arte. Horrez gain, isuna jartzea ere badago indarrean dauden xedapenak hausteagatik.

Tarifa hori ordaintzeak ez du kentzen ontzia askatzeko betebeharra, amarra-lekuz edo ainguratze-lekuz aldatzekoa edo, areago, portutik ateratzekoa, eskudun agintaritzak beharrezkotzat jo eta hala agintzen badu. Portutik atera behar izanez gero, aldezturik ordaindutako okupazio-saria bakarrik berreskuratu ahal izango du.

5.9. T-5 tarifa likidatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dira klub edo elkarte nautikoekin, tokiko erakundeekin eta bestelako elkargoekin –kirol zein nautika-jarduerekin zerikusia dutenekin hain zuzen–. Edonola ere, 5.1 arauan ezarritako tarifak aplikatuko dira, eta hilerok ordainduko zaizkio portuko administrazioari, egindako likidazioari dagozkion xehetasunak jasotzen dituen agiria aurkeztuz.

Aipaturiko hitzarmenetan kobrantza-saria jarri ahal izango da. Jarriz gero, T-5 tarifagatik guztira bildutakoaren % 15ekoa izango da.

5.10. Dagokion organismo ofizialaren agiriaren bitartez pentsiodun direla egiaztatzen duten pertsonen, ontzia pantalanean amarratuta edukitzeagatik, % 75eko murrizketa izango dute T-5 tarifa honi buruzko aurreko zenbakietan zehazten diren arauak aplikatuz ateratzen den zenbatekoan, betiere, amarratzeko baimena eman zaion ontzian nabigatzeko lege eskatzen den titulua aurkeztzen badute.

Murrizketa hau ez zaie aplikatuko zazpigarren zerrendan erregistratutako ontzi bat baino gehiago duten jabeek, ezta sei metrotik gorako luzera duten ontziei ere.

5.11. Amarrak askatzeko edo lotunez aldatzeko agindua jaso duen ontziak maniobra horiek atzeratzen baditu, agintaritzak eskudunak ezar diezazkion zigorrez gain, beste zenbateko hauek ere ordaindu beharko ditu:

- Lehenengo hiru egunetako bakoitzagatik edo zatikiagatik: egun bateko tarifaren zenbatekoa gehi horren % 50.
- Gainerako egunengatik: egun bateko tarifaren bikoitza.

6. T-6 tarifaren zenbatekoa eta arku-garabien prezioa honako hau izango da:

| <u>Garabien jasotze-ahalmena.</u> | <u>Balioa ordu-erdia/euro</u> |
|-------------------------------------|-------------------------------|
| 5 tona baino gutxiago: | 15,85 |
| 5 tona eta 12 tona bitartean: | 28,51 |
| 12 tona baino gehiago: | 40,63 |

Tarifa hauek lan-egunetan eta portuko agintaritzak jarduera horietarako ezarritako ohiko lanaldiaren barruan emandako zerbitzuei baino ez zaizkie aplikatuko. Ohiko lanaldiaz kanpo emandako zerbitzuei % 25eko errekgua ezarriko zaie. Errekargu horixe ezarriko zaie jai-egunetan emandako zerbitzuei, eta gutxienez ordubete fakturatuko da horrelako kasuetan.

7. T-7 tarifaren zenbatekoa hauex izango da:

7.1. Pasagunea.

| <u>Egunak</u> | <u>euro/m²-ko eta eguneko Eremu estali gabea</u> | <u>euro/m²-ko eta eguneko Eremu estalia</u> |
|-------------------------|---|--|
| 1etik 3ra: | ----- | 0,076536 |
| 4tik 10era: | 0,051023 | 0,102048 |
| 11tik 17ra: | 0,076536 | 0,204095 |
| 18tik 30era: | 0,204095 | 0,599531 |
| 31 baino gehiago: | 0,529373 | 1,594497 |

7.2. biltegiatze-gunea:

| | |
|---------------------|--|
| Estali gabea: | 0,044646 euro m ² -ko eta eguneko |
| Estalia: | 0,108426 euro m ² -ko eta eguneko |

8. T-8 tarifaren zenbatekoa kalkulatzeko, hornituriko unitateak biderkatu behar dira unitatearen kostuaren prezioarekin, eta emaitzari % 50 gehitu.

9. T-9 tarifaren zenbatekoa hauex izango da (eurotan):

9.1. Arranpa-karroak.

9.1.1. Igotzeagatik edo jaisteagatik.

| | |
|---|----------|
| 50 EGTraino. Luzera-metro bakoitzeko: | 0,918430 |
| 51 eta 150 EGT bitartekoa. Tona bakoitzeko: | 0,440081 |
| 150 EGTtik gora. Tona bakoitzeko: | 0,631421 |

9.1.2. Egonaldia, eguneko.

| | |
|---|----------|
| 50 EGTraino. Luzera-metro bakoitzeko: | 0,459215 |
| 51 eta 150 EGT bitartekoa. Tona bakoitzeko: | 0,255119 |
| 150 EGTtik gora. Tona bakoitzeko: | 0,414569 |

7. zerrendako ontziek (kirol-ontziek) hurrengo zenbateko hauek ordaindu behar dituzte egunean, luzerako metro bakoitzeko, egonaldi- egunen arabera:

| | |
|----------------------------------|----------|
| 0 egunetik 7 eguneraino: | 0,459215 |
| 8 egunetik 10 eguneraino: | 0,695200 |
| 11 egunetik 20 eguneraino: | 1,071502 |
| 21 egunetik 30 eguneraino: | 2,423635 |

9.1.3. Lehorreratze-arrapala.

Eguneko edo horren zati bakoitzeko: 0,784492

9.2. Aparkalekuak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen diren portuetan, ibilgailuen aparkamendua antolatuta eta araututa badago, zenbateko hauek ordainduko dira:

Portuaren eragin-esparruan bizi direnek (Portuen Zuzendaritzak ezarritako eragin-esparruan, alegia): 18,36 euro urteko.

Mugatutako eremuak dituzten portuetan:

Autoek: 0,77 euro orduko.

Kamioiek: 1,02 euro orduko.

Gainerako kasuetan: 3,06 euro eguneko edo zatikiko.

Donostiako portuan: 54 euro urteko.

Portura sartzeko txartela egiteagatik edo, galdu edo hondatuz gero, berria egiteagatik:

33 euro txartela magnetikoa bada.

6 euro txartela magnetikoa ez bada.

Portuko eremuan gaizki aparkatuta dauden automobilak kentzeagatik: 45,90 euro.

9.3. Pisagailua, pisaldi bakoitzeko: 1,364890 euro.

9.4. Ontzia harea-zorrotadarekin garbitzea. Egun edo egun-zati bakoitzeko: 63,78 euro.

9.5. Presioz garbitzeko makina. Ordu-erdi edo horren zati bakoitzeko: 3,826612 euro.

10. C-1 tarifaren zenbatekoa hauxe izango da:

10.1. Oro har.

| Portua | euroak m ² -ko eta urteko | euroak m ² -ko eta urteko |
|------------------------------|--------------------------------------|--------------------------------------|
| | Eraiki gabeko eremua | Eraikitako eremua |
| Armintza | 7,91 | 15,82 |
| Bermeo | 10,56..... | 21,11 |
| Deba | 7,91 | 15,82 |
| Donostia-San Sebastián | 10,56..... | 21,11 |
| Ea | 7,91 | 15,82 |
| Elantxobe | 7,91 | 15,82 |
| Getaria | 10,56..... | 21,11 |
| Hondarribia | 10,56..... | 21,11 |
| Lekeitio | 7,91 | 15,82 |
| Mundaka | 7,91 | 15,82 |
| Mutriku | 7,91 | 15,82 |
| Ondarroa | 10,56..... | 21,11 |
| Orio | 7,91 | 15,82 |
| Plentzia | 7,91 | 15,82 |
| Zumaia | 7,91 | 15,82 |

Hala eta guztiz ere, baldin eta Administrazioak lehiaketak antolatzen baditu portuko jabari publikoa okupatzeko edo modu pribatuan erabiltzeko kontzesioak esleitzeko, lehen aipaturiko zenbateko horiek baino hobeak aurkeztu ahal izango dira eskaintzetan, betiere lege honen 17.

artikuluaren ezarritakoa kontuan hartuz eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak txostena egin ondoren Gobernu Kontseiluak onartuta.

10.2. Kontzesio bidez esleitzen diren instalazioak lurpean daudenean, eta, horri esker, lurrazalean ibiltzeko eragozpenik ez badago, aplikatu beharreko tarifa eraiki gabeko eremuak okupatzeko tarifaren % 50ekoa izango da.

10.3. Okupazioaren xedea merkataritza edo industriako jarduerak garatzea denean, eta ez badute zuzeneko loturarik portuko eginkizunekin, aurreko taulako tarifari % 50 gehituko zaio.

10.4. Kontzesioaren xedea ur-eremu jakin bat erabiltzea denean, tarifa eraiki gabeko eremuari dagokiona izango da.

10.5. Administrazio-kontzesioen zenbatekoak urtez urte berrikusiko dira, eginkizun hori duen Legearen bidez egingo den portu-zerbitzuen tasen eguneratzearen arabera.

Lehenago esleitutako kontzesioak, kontzesio-tituluan prezioak berrikusteko klausula daukatenak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira, baldin eta klausula horrek lege hau aipatzen badu edo kontsumo-prezioaren indizea ez beste adierazle bat aipatzen badu. Kontsumo-prezioen indizea aipatzen badu, indize horrek izandako gorabeheren arabera berrikusiko dira.

10.6. Tasaren xedea izotz-fabrikak, arrainak jaso, erakutsi, maneiatu edo saltzeko lonjak edota izozteko plantak badira, tarifaren zenbatekoa eraikitako eremuaren okupaziorako ezarritakoaren % 50 izango da.

11. T-1 tarifaren zenbatekoa honako hau izango da:

11.1. Lursail edo eremu bat urtebetea baino epe laburrago batez okupatzeko baimena ematen denean, tarifa hauek aplikatuko dira:

Merkataritza- edo industria-jarduera baterako denean:

a) Portuko jarduerekin zerikusia badu: 0,197717 euro m²-ko eta eguneko.

b) Portuko jarduerekin zerikusirik ez badu: 0,389058 euro m²-ko eta eguneko.

Merkataritza edo industri jarduera baterako ez denean: 0,197717 euro m²-ko eta eguneko.

Baimendutako lursaila edo eremuaren okupazioa urtebetetik gora luzatzen bada, urtetik gora jotzen duen zatiari C-1 tarifako zenbatekoak aplikatuko zaizkio, baita horri dagozkion gainerako arauak ere.

Hala eta guztiz ere, baldin eta Administrazioak lehiaketak antolatzen baditu portuko jabari publikoa okupatzeko edo modu pribatuan erabiltzeko baimenak esleitzeko, lehen aipaturiko zenbateko horiek baino hobeak aurkeztu ahal izango dira eskaintzetan, betiere lege honen 17. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak txostena egin ondoren Gobernu Kontseiluak onartuta.

197. artikulua. Salbuespenak.

1. Erretirodunen ontziak salbuetsita egongo dira T-5 tarifatik, baldin eta erretiroduna izatea dagokion erakunde ofizialaren ziurtagiri bidez frogatzen bada eta salbuetsi nahi den ontziaren legezko nabigazio-titulua aurkezten bada.

Salbuespen hau ez da erabiltzekoa izango zazpigarren zerrendan erregistraturiko ontzi bat baino gehiagoren jabe direnentzat, ez sei metrotik gorako luzerako ontzietarako, ez eta, beren luzera dena dela, moila edo pantalanei lotuta dauden besteetarako ere.

2. Arrantzale-kofradiek eta produktoreen organizazioek ez dute C-1 tarifa ordainduko baldin eta portu-jabari publikoko lursailak okupatzeko baimena eskatzen badute eta lursail horietan izotz-fabrikak, arrainak jaso, erakutsi, maneiatu eta/edo saltzeko lonjak, arraina izozteko edo biltegiratzeko plantak edo lanabesak gorde eta konpontzeko sotoak eraiki eta ustiatu nahi badituzte.

Toki-administrazioko korporazioek ere ez dituzte C-1 eta A-1 tasak ordaindu behar ematen zaizkien kontzesio eta baimenengatik, baldin eta, horien ustiakeetatik, ez korporazioek ez bestek irabazirik ateratzen ez badute.

II. KAPITULUA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZERBITZUEN ERABILTZAILA ETA KONTSUMITZAILAENTZAKO ERREKLAMAZIO-ORRIAK ESKURATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

198. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren zerbitzuen erabilzailaentzako eta kontsumitzaileentzako erreklamazio-orriak eskuratzea da. Zerbitzuen artean daude, orobat, etxez etxeko zerbitzuak, ikuskizun publiko eta jolas-jardueretakoak eta jatetxe eta ostalaritzakoak.

199. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren erreklamazio-orriak eskuratzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira.

200. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Erreklamazio-orriak eskuratzen direneantxe sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra; une horretantxe eskatu ahal izango da tasa ordaintzea.

201. artikulua. Kuota.

Tasaren kuota 1,91 euro izango da erreklamazio-orrien sorta bakoitzeko; sortak 50 orri hirukoitz izango ditu.

III. KAPITULUA. SALTOKI HANDIAK IREKITZEKO BAIMENARENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

202. artikulua. Zergapeko egitatea.

Saltoki handiak ezarri, haien jarduera aldatu eta haien handitzeko baimena emateko zerbitzuak dira tasa honen zergapeko egitatea.

203. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasiboak zergapeko egitate diren baimentze-zerbitzuak jasoko dituzten saltokien jabeak izango dira, pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan.

204. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Saltoki handiak ezarri edo handitzeko edo horien jarduera aldatzeko administrazio-baimena ematen den unean sortuko da tasa hau ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den momentuan eska daiteke tasa ordaintzea.

205. artikulua. Kuota.

Hona hemen tasaren zenbatekoa (eurotan):

1. Saltokitarako baliatu edo handitu beharreko eremuaren m² bakoitzeko: 3,126465
2. Saltokitarako baliatzen den m² bakoitzeko, eskabidea jarduera aldatzeko egiten denean: 1,562333

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arrainak sailkatzeko, lehenengoz saltzeko eta merkaturatzeko gune publikorik ez duten portuetan, eta lan horietarako instalazio pribatuak erabili beharra dutenetan, T-4 tarifarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa, gune publikoak ezarri artean, lege honetako 196. artikuluan ezarrita dauden arauak aplikatuz ateratzen den kuotaren % 40 izango da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Tasak edo prezio publikoak dituzten zerbitzuak Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkionean, Eusko Jaurlaritzak, eskualdatze-dekretuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo sei hilabeteetan, lege honetan ezarritakoaren arabera egokituko ditu tasa eta prezio publiko horien lege-araubideak, dagozkion legegintza-ekimenak aurkeztuz.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa betetzeko onartzen diren arauak indarrean jarri arte, Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkion zerbitzuen tasek eta prezio publikoek une horretara arte arautu dituzten arauen pean jarraituko dute.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Jaurlaritzaren Kontseiluari testu bategin honetan ezarritakoa garatu eta gauzatzeko behar diren xedapenak eman ditzan, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez eman ere.

Hirugarrena. Eusko Jaurlaritzak bere web orrian izango ditu ikusgai, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu eguneratua, bai indarrean dauden prezioen informazioa.

ERASKINA I

ERAIKUNTZAKO KALITATEAREN KONTROLERAKO LABORATEGIAREN ZERBITZUENGATIKO TASAREN TARIFA

| | | | | | | |
|----|------|---------|---|--|-------------------------|--------|
| | | () | <i>MATERIALAK:</i> | | | Euroak |
| 1 | A | (_A) | <i>AGLOMERATZAILEAK, ADITIBOAK ETA ITSASGARRIAK</i> | | | |
| 2 | AC | (_AC) | <i>ZEMENTUAK</i> | | | |
| 3 | AC01 | (_AC01) | <i>Zementu-laginak hartzea.</i> | <i>16 kg-ko lagina.</i> | RC-03 UNE 80401:1991 | 14,03 |
| 4 | AC02 | (_AC02) | <i>Konpresioaren eta makurduraren kontrako erresistentzia.</i> | <i>Hiru probeta eta aldi bakarra</i> | UNE-EN 196- 1:1996 | 73,44 |
| 5 | AC04 | (_AC04) | <i>Ehoketaren xehetasun maila.</i> | | UNE 80.122:1991 | 49,27 |
| 6 | AC07 | (_AC07) | <i>Hezetasuna.</i> | | UNE 80220:2000 | 14,03 |
| 7 | AC15 | (_AC15) | <i>Gogortze-aldia.</i> | | UNE-EN 196- 3:1996 | 70,48 |
| 8 | AC16 | (_AC16) | <i>Neurri-egonkortasuna (Le Chatelier).</i> | | UNE-EN 196- 3:1996 | 59,47 |
| 9 | AC17 | (_AC17) | <i>Kaltzinazioan galdutakoa.</i> | | UNE-EN 196- 2:1996 | 55,69 |
| 10 | AC18 | (_AC18) | <i>Sulfatoak zehaztea. Metodo grabimetrikoa.</i> | | UNE-EN 196- 2:1996 | 30,91 |
| 11 | AC19 | (_AC19) | <i>Hondakin disolbaezina azido klorhidrikoan, sodio- karbonatoan edo potasio- hidroxidoan zehaztea.</i> | | UNE-EN 196- 2:1996 | 45,08 |
| 12 | AC20 | (_AC20) | <i>Kloruroak zehaztea. Volhard-en metodo bolumetrikoa.</i> | | UNE 80217:1991 | 43,25 |
| 13 | AC21 | (_AC21) | <i>Sulfuroak zehaztea.</i> | | UNE-EN 196- 2:1996 | 70,58 |
| 14 | AL | (_AL) | <i>KAREAK</i> | | | |
| 15 | AL01 | (_AL01) | <i>Neurri-egonkortasuna.</i> | <i>5 kg-ko lagina.</i> | UNE 7204:1962 | 72,42 |
| 16 | AL02 | (_AL02) | <i>Gogortze-aldiak.</i> | <i>5 kg-ko lagina.</i> | UNE-EN 459- 2:2002 | 70,48 |
| 17 | AL03 | (_AL03) | <i>Azterketa kimikoa (sulfatoak, sulfuroak, kloruroak, kaltzinazioa,</i> | <i>5 kg-ko lagina.</i> | UNE-EN 459- 2:2002 | 179,67 |

| | | | | | | |
|----|------|---------|---|-------------------------|--|--------|
| 18 | AL04 | (_AL04) | <i>Ehoketaren xehetasun maila.</i> | <i>5 kg-ko lagina.</i> | UNE-EN 459-2:2002 | 60,33 |
| 19 | AL05 | (_AL05) | <i>Hezetasuna zehaztea.</i> | <i>5 kg-ko lagina.</i> | UNE-EN 459-2:2002 | 17,65 |
| 20 | AW | (_AW) | HORMIGOI ETA MORTEROETARAKO URAK | | | |
| 21 | AW01 | (_AW01) | <i>Ur-lagina hartzea.</i> | <i>8 litroko lagina</i> | UNE 7236:1971 | 40,65 |
| 22 | AW02 | (_AW02) | <i>Hidrogeno-adierazgarria (pH).</i> | | UNE 7234:1971 | 25,14 |
| 23 | AW03 | (_AW03) | <i>Substantzia disolbagarriak (zenbatekoa).</i> | | UNE 7130:1958 | 28,05 |
| 24 | AW04 | (_AW04) | <i>Sulfatoak SO=4 tan (zenbatekoa).</i> | | UNE 7131:1958 | 102,00 |
| 25 | AW05 | (_AW05) | <i>Kloro-ioia, Cl-tan (zenbatekoa).</i> | | UNE 7178:1960 | 29,33 |
| 26 | AW06 | (_AW06) | <i>Karbohidratoak (nolakoa).</i> | | UNE 7132:1958 | 22,03 |
| 27 | AW07 | (_AW07) | <i>Olio eta koipeak (nolakoa).</i> | | UNE 7235:1971 | 20,86 |
| 28 | AW08 | (_AW08) | <i>Olio eta koipeak (zenbatekoa).</i> | | UNE 7235:1971 | 46,72 |
| 29 | AY | (_AY) | IGELTSUAK ETA ESKAIOLAK | | | |
| 30 | AY01 | (_AY01) | <i>Laginak hartzea.</i> | <i>18 kg-ko lagina.</i> | RY-85 | 30,45 |
| 31 | AY02 | (_AY02) | <i>Ur konbinatua.</i> | | UNE 102032:1999 | 39,27 |
| 32 | AY03 | (_AY03) | <i>Purutasun maila.</i> | | UNE 102032:1999 | 161,67 |
| 33 | AY05 | (_AY05) | <i>pH-a zehaztea.</i> | | UNE 102032:1982 UNE 102032:1999 erratum UNE 102032:2003 | 34,27 |
| 34 | AY06 | (_AY06) | <i>Ehoketaren xehetasun maila.</i> | | UNE 102031:1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 | 39,17 |

| | | | | | | |
|----|------|---------|--|-------------------------------|--|--------|
| 35 | AY07 | (_AY07) | <i>Flexotrakzioaren kontrako erresistentzia.</i> | <i>3 probetako sorta.</i> | UNE 102031: 1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 | 50,39 |
| 36 | AY08 | (_AY08) | <i>Gogortze-aldiak.</i> | | UNE 102031:1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 UNE 102031:2003 | 70,48 |
| 37 | AY09 | (_AY09) | <i>Asebetetako oreari dagokion ur/igeltsu erlazioa.</i> | | UNE 102031:1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 | 47,94 |
| 38 | AY10 | (_AY10) | <i>Sufre-trioxidoa (SO3).</i> | | UNE 102032:1999 | 122,40 |
| 39 | AY18 | (_AY18) | <i>Euskarriarekiko itsasgarritasuna zehaztea.</i> | <i>10 zehaztapeneko sorta</i> | UNE-EN 10231:1999(anexo A) En laboratorio (probetas preparadas por el peticionario) | 96,90 |
| 40 | | | | | UNE-EN 10231:1999(anexo A) “In situ” (probetas taladradas por el peticionario) | 224,50 |
| 41 | AY19 | (_AY19) | <i>Shore C gogortasuna.</i> | <i>10 zehaztapeneko sorta</i> | UNE 102031:1999 | 18,36 |
| 42 | AY20 | (_AY20) | <i>Konpresioaren kontrako erresistentzia.</i> | <i>3 probetako sorta.</i> | UNE 102031:1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 | 64,36 |
| 43 | AY21 | (_AY21) | <i>Itxurazko dentsitatea.</i> | | UNE 102031:1982 UNE 102031:1999 erratum UNE 102031:2003 | 49,06 |
| 44 | C | (_C) | ZERAMIKA-GAIAK | | | |
| 45 | CA | (_CA) | LAUZAK | | | |
